

ΜΙΡΗΒΕ

eta

LANTEGIETAKO GAZTEENTZAT
KONSEJUAK,

Andra Maria de los Dolores del Pozo
y de Mata Saavedra-koak

ERDERAZ ESKRIBATUAK.


EUSKERARA BIURTZEN DITU

Aita Eusebio Lardizabal

Letran-go Kanonigo Araudunak.



Tolosan. E. Lopez-en echean.
1909-garren urtean.



H-41707
R-43856

ATV
23413

MIÑABE

eta

LANTEGIETAKO GAZTEENTZAT

KONSEJUAK,

Andra Maria de los Dolores del Pozo

y de Mata Saavedra-koak

ERDERAZ ESKRIBATUAK.

EUSKERARA BIURTZEN DITU

Aita Eusebio Gardizabal

Letran-go Kanonigo Araudunak.

OBISPO JAUNAREN BAIMENAREKIN.



Tolosan: E. Lopez-en echean.
1909-garren urtean.

THE NATIONAL
ARCHIVES
COLLECTION
OF
DOCUMENTS
RELATIVE TO
THE
AMERICAN
REVOLUTION
1763-1789





ITZ BI.

Orain zortzi urte dirala, gure euskal-mendi maiteetatik Amerikarako irte-tzean, gure izkuntza ez-tian konseju oek ikusteko eresi bizia agertu ziran emakume on batek. Eskeñi nion lan gozotsu au: baña “gizonak naia badu, Jaunak erabakia artzen duan bezela izaten da”, Kempis beneragarriak dion bezela (Imitazioiko 1.^o lib. 19.^{en} burua): ta nere gogoak luzapen aundiak izan ditu. Lenen ikasola edo kolejioko eginkizunak eta gero (lau urte oetan) Parrokiako ⁽¹⁾ lanbi-deak beta guchi eman diate onetan arretaz ekiteko. Ala bait ere, Jaunak nai izan du azkenik eresi ura betetzea. Ez-dakit asmatu ote detan euskal-izkuntz

(1) Salta (Republica Argentina) Ama Andre Kandelariako Elizan.

ederrari eta gure antziñako mendietako gaztechoai dagozkien oñean. Bere naia auñen litzake, galbide aski dituzte noski euskal-neskachak erbestera joaten. Guzia *alderantzira* bezela agertzen da beren begietan. Beragatik esango diet gaztecho oiei, Manuel Gomez Adanza, Vich-eko Deanak liburuko onetzaz ziona: "bere erreztasunean chit oñ ederra du lagunkidatasunarentzat; beragatik gogoz nereak egiten ditut bere esanak, sinismen sendoan nago bada chit egoki erantzuten diela gure egunetako bearrai, eta oso on pozgarria egingo diela langilleai, Jesus gure Erakuslearen antzera, izanaz bigun eta zintzoak bere gurasoen alde eta lanean aleginduak. ⁽¹⁾

Bera izan dedilla bada izar argitsua-
ren antzera zuen bidean. Eta oroitu
zaitez teta niretzaz Jaunaren aurrean.

Saltan, Maiatzaren 26-an, 1907-ga-
rren urtean.

Eusebio Iardizabal

Letran-go Kanonigo Arauduna.

(1) 1998-ko urteko Ilbeltzaren 13-an.



NERE IRAKURLEAI.

Nere alabak: Argirik arkitzen badezute liburuko onetan santututzeko zuen zuzenbidean, ⁽¹⁾ eta pozkidaren bat zuen biotzarentzat, egizkiozute eskerrak Jaungoikoari, baita ere bere laguntzalle bati, Aita Kapuchino bati. Berak, serbitzen jarritzendiran, eta echetik kanpora lanera dijoazten neska gaztechoen artean galdu oi diran ainbeste eta ainbeste animaezaz, errukituta esan zidan, jakiñik eskribatu nituala beste liburuko batzuek:

«¿Zergatik eskribatutzen ez dezu liburu bat, ikasi dezaten neska gaiño oiek zer egin bear duten, eta zer utzi beren zuzenbidean ongi bizitzeko, eta beren anima salbatzeko? Echekoandra

(1) Estaduan

guziak, zion gañera Aita on arek, eta lanean gazte oek dauzkaten agintari guziak daude espaz ⁽¹⁾ beteak, eta arrazoi-az; baña, egia esateko, echekoandra guchik eta chit nagusi guchik lan egiten dute onak egiten: ikusten dute okerrak dirala, uzten dituzte, eta gañoak lenago bezela oi dira, ez dutelako nork ondu nai. Eta egia bada ere badirala onetan alegintzen diran anima bigun batzuek, oraindik guchi da gaitz ikaragarri au sendatzeko; bada egunean gei-ago eta geiago galdutzen dira mirabe eta langille gaiño oen artean: gauz aundi andi eta eder bat egingo dezu bada liburuko bat eskribatuaz, ikasi dezaten nola ongi bizitu beren zuzenbidean, eta litzake gauza bat chit atsegiña Jaungoikoari eta on andikoa neska gazte oentzat.»

Aita Kapuchino onen itzak zeruko asia bezela jausi ziran nere biotzean; graziaren intzaz busti zituan noski Jaunak, eta gaur eskeintzen dizutet beren frutua liburuko onetan, erakutsitzeko argia zuen bidean, pozkidatzeko

(1) Kejaz.

eta zorionekoak egin naiean, neregan dagoan guzia mundu onetan, irabazi dezazuten gero zuen birtuteaz zeruan.

Jarraitu nintuen Jaunaren laguntzallearen esanak, ezagututzen detalako chit ona zala esaten zidana. Eta orain, nere alabak; jarraitu itzatzute zuek ere nereak, bada izango dizutedan guzia chit ona izango da bera ere; arretaz ibilliko naiz, guzia Jaungoikoaren agintze eta lege santuari dagokienez izan dedin, oetara menderatu bear ditugun ezkerro gure bizitzako eginkizun guziak, nai badegu gure anima salbatu.

Mirabe gaztechoentzat badira ere, lenen, nere esanak, nai nuke, eta nere gogoa da, beren echetik kanpora ogia irabazten duten neska gazte guztiak irakurtzea, eta liburuko onetatik on aundiak ateratzea.

Jaunak bedeinkatu dezala lan au, eta izan dedilla bere gloriarik aundienerako eta zuen animen onerako, ala opa dizuten bezela biotz guzitik

Eskribatzalearak.



LENENGO BURUA.

Lenengo esan bear dizutena da, nere alabak, ezdezazutela egundaño arrotzakin bizitzeko zuen echea utzi, naiz bear-tasunez eta gau eta egun lana egiñaz, ogi puska bat irabazi albadezute zuen gurasoen aldamenean. ¿Bai al dakizute zertako jaio geran guziok? Jaio gera Jaungoikoa ezagutzeko, maitatu eta serbitzeko emen lurrean, eta gero, gure egite onen sarian eta bere erruki neurrigabearen bidez, berekin betikotasunean izateko: au da gure egitekoa, eta aldan egokiena betetzeko neurriak billatzen alegindu bear degu.

Ezagututzen degu Jainkoa bere irakasde (1) santua ongi ikasiaz.

Maitatzen degu beti jarriak gaudela lenago iltzera pekatu larri bat ez egiteko.

(1) Doktriña.

Eta serbitzen degu gauza guzietan bere gogo chit santua egiñaz, naiz sarritan minberatu bearrean arkitu, deabruak eta gure griña biurriak gu joatea Jaunak nai ez duen tokira eramaten gaituztelako eta indarte andiak egin bear ditugu zintzoak izan nai badegu.

Beraz bada; lenen pensatu bear dezutena da zergatik utzi nai dezuten zuen echea, eta zergatik utzi zuen gurasoak.

Errian ezin arkitu badezute lanik irabazteko egunoroko ogia egia da kanpora joan bearrean zaudetela, ezin biziko zerate bada jan gabe.

Ekintzategi (1) batean sartu bear badezute an loi-zikiñeko gizonen artean, ardurarik eztuelako nagusiak ipintzen, uste det askoz ohea dala orduan eche on bat billatzea eta neskametzan jarritzea.

Baña bi erakai (2) oetatik kenduezkerro, ez dezazutela beñere, egundaño, nere alabak, aldegin zuen gurasoetatik, zuen senideetatik, eta batzuek ezkondu, besteak bataiatu zituen eta esan on bat

(1) Fabrika.

(2) Arrazoi.

emateko beti jarria dagoan animen-zaigo (1) prestuagandik.

Sinistu zaidazute, alabachoak; ez dezazutela egundaño zenbait neskachek bezela egin, bizi alditezkeela beren baztarran eta zer jan izan beartasunean bada ere, beren gurasoen aldamenean, uzten dute echea uri (2) andiak ezagututzeko eresian, eta beren echeetako ogi beltza jateak baño geiago ergeltzen dituztelako bizi toki andi oetako ogi churiak.

Ez dezazutela gañera aietara joan nai izan, ikusteko eta saiatzeko baserritar gizajoak baño gazte chotillagoren bat arkitzen ote dezuten, enzun ditzatzuten amoriozko itzak eta ergelkeriak.

¿Badakizute erakai oegatik bakarrik beren erria eta gurasoak uzten dituzten neskachen azkena. Sarritan bakartasunean eta baztertuak eritegi (3) batean iltzea; etzituzten beren gurasoen zartzarroa jasotzen irabaziak gastatu, baizik andreen (4), zuriketakin beren jantzi-choak aldatzen.

Itzultzen dira onelako tristeak beren

(1) Erretorea edo Parrokoa.

(2) Ciudade andiak.

(3) hospitala.

(4) señorsen.

errira eta beren amen aldamenean ogia oratutzera (1), baña ez lenago bezela beren kantu alai eta garbien artean, baikik kezka gogor, eta uri andietan izan dituzten naigabien negar malko ugariakin.

Beren buruak erakusteagatik echea eta gurasoak utzi dituztenak artu oidute kastigu chit zuzena, bada esanik dauka Jaungoikoak, irriskuan jarritzen dana, irriskuan ilko dala.

Eztaude zuentzat uri andietan, nere alabachoak, guzia naspillatu eta zuen animak galdutzeko irriskuak eta tokiak besterik; eta zenbat gazteagoak izan, zenbat ederragoak eta tolesgabeagoak (2), anbat arrabi geiagorekin zirutzen zaituzte deabruak.

Ezditzatzutela egundaño bekaizkotu (3), esan diran erakaiagatik, beren erritik aldegiten duten, eta, esan dizutedan bezela, andreen ichuran beren ekantza edo erretratoak bialdutzen dizkizuten lagunak: *andreen ichuran* diot, eztiralako beste gauzarik jarri oidituzten motoak

(1) egitera.

(2) senzilloak.

(3) enbidia izan.

(1). bada echeratzean beren egiazko soñekoa jantsi, zatarra artu eta ontziak garbitu bearrean arkitzen dira, gogo charretik bada ere, uste dutelako ez tala au echetik irtetzeko ainbeste choragarri daramazkionari dagokion lanbidea.

Ez bekaizkotu, ez, onelakoak, bada biarko egunean negarrez ikusiko dute bearbada beren zorigaiztoa, zuek pozkidaz beteta, onratuak zeratelako, bere emaztetzat artu zaituzten, zuen semeen aita zintzo eta bere kopeteko izerdiaz (Jaunak bedeinkatzen duan) ogi puska irabazten duan beargin onari bazkaria ipintzen diozuten bitartean: zuek izango dezute senar beartsu baten, baña onraduaren naitasuna eta aiek... bearbada geite edo lujo larrigiagatik engañatu dituan zaldun galostu (2) gaiztotzarren baten uruña (3), ongi dakizutelako irris-kutik aldegiten ez tuana irriskuan galduko dala.

(1) mototsa.
(2) infamea.
(3) despreziosa.

BIGARREN BURUA.

Echetik irten eta zuen gurasoak ustea beste biderik ezbadezute, bizitzeko beardezuten ogia irabasteko, ikusten da oridala orduan Jaungoikoaren gogoa eta bera agertutzen da orretara beartutzen zaituzten aldakoi (1) oietan.

Orduan izan zaitezte chit onak, izan ezazute Jaunagan uste osoa, zaudete beti gertu lenago milla aldiz iltzera pekatu larri bat ez egiteko, eta ez izan bildurrik, Jaungoikoak eta bere Ama chit Garbiak etzaituzte utziko.

Deabrua da askatuta daudela aurrean ikusten dituzten guziaz ozka egiten diezteen zakur gaizto eta amorratu aien antzera, baña lotuta badaude geiegi inguratzen danari baizik ezer egiteko eskualdirik ezdutela: aldegin ezazute deabruagandik eta eztizute egingo gaitzik: ¿eta nola aldegiñ gauz onak egiñaz?; nola alderatzen zaio? pekatuaz: badakizute beraz bidea eta sendakaia; zenbat obeak

(1) zirkunstantzia.

izan, anbat zuengandik urrrutiago izango dezute.

Zuen gurasoetatik, zuen senide eta maite dituzuten guzietatik aldegiterako, egin ezazute bere ama iltzean Teresa Santuak egin zuana: ¿badakizute zer? belaunikatu zan Ama Mariaren ekanza edo imajiña baten aurrean eta esan zion biotz guzitik: «Ezdaukat, ene Ama, zerruan eta lurrean zu beste amarik; errukitu zaite nereaz, artu nazazu zure alabatzat; eta askabiata (1) nazazu zure esku eta naitasun altsuaren bidez bizitzan izango ditudan anima eta gorputzeko bide oker guzietatik.»

Au bera egin bear dezute zuek ere, nere alabak, erritik irten baño lenago; zoazte eleizara, eta Ama Mariaren aurrean belaunikatuta, esan zaiozute gogo eta uste osoaz bedeinkatu zaitzazutela, eta eskeñi dakiozute beti izango zeratela bere maitatzalleak, eta beti eramango dezutela bere eskapulario don-tsua zuen bularrean; ezdezazute beñere utzi zuengandik, muñ egiten diozutela oierakoan eta oietik jaikitzean, sinistuz

(1) Libratu.

bera izango dala gaitz guzitik gordeko zaituztena.

Serbitzera zoazten urira eldutzean, alegindu zaitezte arduraz zuen azgarri edo jenioarekin egokiena izango dan erakai edo kondizioetako eche on bat billatzen, bertan pozkidaz bizi zaitezten, eta ez aldatu lau egunetik lau egunera, nagusiai eta mirabeai kalte andiak dakartzien gauza dalako; pensatu bada ongi-artu baño lenago.

Etzaitezteela mirabetzan jarri pazientzirik ezbadezute, bada guzirako bear da mundu onetan osartea (1); baña beti besteren gogoia egiteko serbitzen dagoanari gertatzen zaion bezela, askoz ere geiago oraindikan.

Ume zaleak ezbazerate, etzaitezteela aurrak dauden echean sartu; askotan jostatu eta alaituko bazerate ere oekin, beste askotan ez dezute izango milla gezakeri igaro bearra besterik: eta au bera esaten dizutet persona zarren batzuek arkituko balira echean, bada zarrak aur biurtutzen dira.

Gogorik ezbadiozute bizitza triste eta

(1) pazienza.

menari (1), ez sartu andra edo emakuma bakarraren echean; auſen bada ere zuentzat gauzarik egokiena, laster aspertuko ziñateke eta guchi iraun echean.

Bizitza paketsua gustatzen bazaitzute, ez jarri asko dauden echean; eta ezin datekean gauza nola baitan egoki ez edo okerren bat eztan tokia, argatik konsejatzzen dizutet auta dezazutela aurreraz zuen etorkiaz (2) egokiena datorrena.

Eche bat gotiriſitzean (3) ez engañatu egundaño echekoandra, esanaz, sukalde-rako onak zeratela, giſatzen jakingabe, eta gelazaia (4) izan naiz, naiko lanarekin planchatzen badezute ere musu-zapi (5) bat.

Ezertan ez badakizute andizkien echeetan serbitzeko, zuen baztarretik orduan irtetzen zeratelako, ezdezazute izan irabazi andia eskatutzeko ausardia (6), gauza lirañak egiten bazeñikizute bezela, bada askok eskatu oi dituzte irabazi andiak, naiz ezer jakin ez, esanaz, guchi

(1) serioari.

(2) jerioarekin.

(3) pretenditzean.

(4) kamarerak edo donzellak.

(5) pañueloa.

(6) atrebenzia.

irabasteko ongi zeudela errian, eta etorri badira diru asko egiteko dala.

Ez, nere gaztechoak, etzerate berbertatik nai guzia irabaztera etorri, baizik zer jan izatera eta zerbait ikastera; asko irabazte ori gero izango da, orretarako gaikerarik (1) badezute.

Orain orain bezela umiltasunez esan bear dezute ezdakizutela ezer, baña ikasteko chit gogo ona dezutela, eta onak izanda, etzaizute echerik paltatuko, toki onetan urte asko daramazkitelako beren egitekoak ongi betetzen dakienak aibat irabazinaia ez badezute.

Bazeñikizute zuek zer pazienza bear duten echekoandrak ezer ezdakiten eta guzia *alderantzira* aditzen duten neskatš gaišo oiei zerbait erakusteko, ezagutuko zenduteke irabazi bearrean, berak saristatu bear lutekela echekoandra, eta leialagoak izango lirake, askok egiten dutena egin gabe; ez aldute zerbait ikasten echekoandraren pazienzi ori eskerrak, uzten dute bost peseta geiago nork emana badute, oroituz gabe berari zor diotelaguzia.

(1) *habilidad*erik.

Ezer jakin ez eta asko irabazi nai dutenak, ezditu inork nai, amilka dabilte eche batetik bestera, eta chit gaizki bukatu oi dute, berak billatzen dutelako beren ondarena, bada ezdute umiltsuak izan nai eta zerbait ikastera gogoz jarri.

Gazteak eta ederrak bazerate, ez jarri serbitzen, *albada*, galai gazteak dauden echean: diot *albada*, ez det bada inolaz ere esan nai ezin serbitu datekela oek dauden echean: gero itzegingo degu argirogo onezaz.

Biziro konsejatutzen dizutedana bada, etzaitzeltela jarri inolaz, naiz irabazi andia izan, gizonak bakarrik dauden echean, aiek gazteak ala zarrak izanarren, bada mugaldia (1) kendutzen duanak, irriskuak kendutzen ditu: bakarrik bizi diran zaldunak morroiak iduki bear dituzte, eta adinako (2) giltzazai bat guzian begiratu eta erabakitzaiko, baña neskame gazteak ez egundaño.

Andraren bat eztagoan echean, eztu beñere serbitzen jarri bear neskach gazte batek, aski eztalako mundu onetan, nere alabak, onratuak izatea, baizik

(1) *ocasio*.

(2) *edadeko ama de llaves*.

beartuak gaude gañera alašen agertzea, gaizbiderik (1) ez emateko, bada aušen da, urko lagunari egiten zaion kalteagatik, Jaungoikoa geiena asarretu oituten pekatuetakoa.

Neskach gazte eta eder batek gizonak bakarrik dauden echean serbitu naitu badu, naiz izan aingerucho bat, egon dateke chit seguru, zer esanik izango duela; arrazoia, bada erakairik (2) asko ematen du: emakuma baten izen ona edo estimazioa beti da edozein gauzak loitutzen duan kristal argal baten antzekoa.

Ez izan aundinaiak, ez Judasen antzekoak; onek ogeita amar dirutan saldu zuan bere Jaun eta Jainkoa, anima ere saldutzen ziola deabruari era berean.

Mirabeetzako echeren bat izendatuzean, galdetu bearrean bereala zenbat irabazten dan, galdetu zazute kontrara, gerlijiorik bada echean? Mezatara joaten aldira guziak? Errosario dontsua echean esaten alda?

Aušen da, nere alabak, aušen geiena ardura bear dizutena, erlijioa duten

(1) eskandalorik.

(2) motiborik.

echean mirabeai ikasbide (1) onak eman eta ongi begiratzten zaitelako.

Zer ajola izango dizute mundu guzia irabaztea, anima galdutzen badezute. Jaungoikoak berak esan du: zeta bada-kizute zer esan nai duan? Bada, esan nai du ezdizutela ezer balioko illean peseta asko irabazteak, ez echekoandrak bezela jazteak, ez arra t'erdiko orpoi-llak (2) eramateak, baldin gero inper-nura bazoazte ain apainduak eta ede-rrak.

Lenen pensatu bear dezutena da zuen anima gozabetatu edo salbatzea: onetarako izendatu nai dizutet bide zu-zen bat; jarraitzen badezute, ikusiko dezute Jaunak bedeinkatuko zaituztela, zuen nagusiak chit pozkidaz izango dira, eta zuek izango dezute munduan eman aldezen atsegiñik andiena, au da konzienzi on bat izatea, kezkarik ga-be, ongi bete dituzutelako zuen egite-koak: eta orain agertu nai dizutet zer dan oetan aurrenekoa.

(1) ejemploak.

(2) zapata koskorak.

IRUGARREN BURUA.

Jaungoikoa da Jaun guzien Jauna, eta bera maite bear dezute beste guziak baño lenago. ¿Eta badakizute nola maitatzen dan Jaungoikoa? Bere aginduak gordeaz, nagusiai serbitzen zaizten bezela beren agintzeak beteaz. Agertu nai dizutet, bada, pakean bizitzeko egin bear dituzuten erlijioko gauzak, eta sinistu nazazute, nere alabak, ongi betzezen badezute Jaungoikoari zor diozute-na, nere esanak jarraitzen badituzute, pozkidaz biziko zeratela, Jainkoak eramankizuna eta indarra emango dizute-lako, eta ongi dabillanak beti du biotzean Jaunak utziko eztuen uste bizia; beragatik ezta biarko egunaz larritzen, bada ongi daki Jainkoa serbitzen duanari, Jainkoak lagunduko diola.

Gaizki dabillena, beti dago etzia; konzienziako kezkak deadar egiten diote, kastigua merezi duala, eta bizi da ikaraz beteta pensatzen ordu guzietan, emango duela Jaunak usterik guchiena danean.

Serbitzen zaudetenak edo ekintzen (1) batean lana eginda zuen ogia irabazi bear dezutenak, ezin eman ditzazkiezute aresti (2) asko otoitzari, (3) eleiz-gauzai eta liburu onak irakurritzeari, baña ezta au salbatzeko gauza bearra: Jaunak berdin maitatuko zaituzte guchi erreza-tuta, zuen echekoandra asko errezatuaz bezela, ongi ikusten duelako ez dezutela orretarako erarik, eta geiago saristatuko dizute zuei Aita-gure bat ongi esana echekoandrari amabiko bat baña; bada Aita bat chit ona eta zuzena da Jaungoikoa, eta nola bai dakien era edo beta guchi dezutela, guchi errezatuarekin naikidatutzen (4) da.

Guzia dago, Jainkoak aditzen digulako uste oso eta naitasun biziarekin beti errezatzean: begira gogoz esatea noana.

Lepoan eraman oi dezuten Ama-Mariaren ekantzaz (5) gañera, eraman ezazute Jesusen Biotz maitearen eskapularioa, berak ondasun aundiak emango diz-

(1) ofzioren.

(2) denbora.

(3) orazioari.

(4) kontentatzen.

(5) imajiaz.

kitzutelako eta gaitz askoetatik askabia-
tuko, (1) zaituzte uste oso eta gogo onez
eramaten badezute.

Laztandu zazute gogoz eskapulario
au goizean esnatzean, esanaz: «Nere Je-
sus maitea, eman zaidazu zure biotza eta
artu nereea, eta egidazu zurea bezela isil
ta zintzoa.»

Esan itzatzute gero *Kredo* bat, *Salbe*
eta *Aita gure* bat; ez baña nola nai, bai-
zik pensatuaz Jaungoikoarekin eta Ama
Mariarekin itz egiten dezutela; beraga-
tik chit gogoz, geldi eta begirunearekin
(2), esanaz gero: «Jesus, Jose eta Maria,
ematen dizkitzutet nere biotza eta nere
anima;» eta gero eman zaitezte al dan
arretarik andienarekin zuen egitekoe-
tara.

Plazara joatekoan eleizaren bat ikus-
ten badezute, ongi litzake sartutzea eta
Sakramentuaren egoitaldia (3) egunoro
esatea, eta ezdauka noski zer espatu (4)
echekoandrak orregatik, bada eztira one-
tarako bear minutu batzuek baizik: pla-
zako berriketak dira berandututzen di-

(1) libratu.

(2) errespetoarekin.

(3) estazioa.

(4) kefatu.

zutenak eta gaizki beteerazo zuen obligazioak, bada pausotik pausora geratzen zeratela, echera beñere ez biurtzea da; nai badezute, geienez galdu oi dezuten betaren erdiarekin egingo dituzute plazako gauzak.

Uste det liburu au irakurriko duten askok galduko zutela bein baño geiagotan zuten eche ona, bear baño geiago plazan geratu ziralako, bada bein eta gero echekoandraren pazienza larrituaz, etortzen da egun bat ta orduan ez supritu naidu, ez igaro lezakean.

Pensatu bear dezute plazatik Jainkoak dakienez itzultzea dala echeko gauza guziak irabiatzea (1), eta gero betik ez, eta zalapartan eta nola nai egin bear da guzia: badator jatordua eta nagusiak espatzen (2) dira (eta arrazoiaz) ezer balio eztualako saldak, ez aientzat ez zuentzat, eta guzia izan ezuelako ona irtetzeko bear zuen garaya.

Arteztu (3) zaitezte onetan, bada be-
ra da geiena utzegiten dezutenetako

(1) irastornatzea.

(2) kefatzen.

(3) emendatu.

gauza, eta au narkeri (1) andi bat da; bein eroskera bukatuezkero, ezdaukatzute plazan zer egiñik, ezpada izketa alperretan beta galdu, zeren buruari kalte egin eta bear bada eche on bat galdu betiko, esan dan bezela.

Ez badute echean pamiliko eta mira-beakin Errosario santua esateko oitura-rik, ez dezazute zuek esan gabe utzi egundaño zuen lagunakin, edo bakarrik, ez badituzute oek: eta ez esan ez deztela erarik, ez da au egia-ta.

Ama Maria beartua egonarren, zuek baño lan geiago egiten zuan; berak eskobatu bear zuan echea, berak ontziak garbitu, berak gisatu eta bere Seme Maitearen eta Aita Jose santuaren aldagarriak (2) zuzendu; ala bait ere beti zuan errezatzeko beta.

Chit ongi bizi ziran gurasoen alaba zan Senako Katalin Santua, ala ere bere birtutea agertzeko, jarri zuten sukaldeko eta echeko beste lan guzietan; bera ain ona nola bait zan, serbitzen zitan chit gogoz, lan asko egiten zuan, eta beste bizitzan ainbat erregu zuzen-

(1) tontada.

(2) jantziak.

tzen zituan neskametzan: ala zuek ere, lan egin eta kantatu dezakezuten beze-la era berean, edo lan egin eta maiñiatu nagusi berberagatik bear bada, chit ego-ki lan egin dezakezute eta Errosarioa esan, bada Jainkoa toki guzietan dago, eta toki guzietan entzuten dizute; eta au bera Ama Mariak.

Ainbeste aldiz gauza utsetan dirua gastatzen dezutenezkero, erosi ezazute metalezko gurutze bat peseta pare batean, ipiñi erazo egizkiozute, eskualdia daukan Apaiz bati, al diran barkapen (1) guziak, eta iduki ezazute beti zuen oi-buruan: ezdezute beñere utzi bear gurutze au, berak izan bear du edozein ehetan sartutzean zuen gelan jarriko dezuten lenengo gauza, eta irtetzekoan lenen artu bear dezutena; ezta ardura nagusiak izendatu (2) dizuten gelan beste ekantza edo imajiñ batzuek arkitzea, onek zuena izan bear du eta beti zuekin.

Gaban oiakoan belaunikatu zaitezte gurutze santu onen aurrean, eta pensatu iru gauza: lenengo, ongi errezatu dituzuten goizeko otoitzak (3) eta Errosa-

(1) induljenziak.

(2) señaletu.

(3) orazioak.

rio santua; bigarrena, ongi akindu (1) ote zeraten nagusiakin, engañatu gabe eta erantzuera charrik eman gabe; eta irugarrena, besteakin eta zerokin izan dezuten pensamentuetan, itzetan eta egintzetan, edozein gazte kristauak, beartsu edo aberatsak, echekoandre edo mirabeak, izan bear duan egokitasuna bada birtute au eztuan gazteak, eztu Jainkoaren eta gizonen uste charra besterik irabazi, naiz izan beartsua edo aberatsa.

Eta guero eskatu Jaunari utsegiteen barkapena, eta gauza larrian balitz, artu ezazute alik lenen aitortzeko (2) asmoa; utsegin ezpadezute gauza larrian, egiozute eskerrak, eta esanik, goizean bezela, *Kredo* bat Jaunari, *Salbea* Amia Maria eta *Aita gure* bat Jose santuari egun artako eta bizitza guziko utsegiteen damu egiazkoarekin, zoazte oera Jainkoaren pakean eta laguntzan: baña artu beti urrengo egunean obeak izateko asmo sendo bat Jaunak bizitza gordetzen digun artean, bere gloriarik andienerako zerbait aurreratu bearrean beti gaudelako.

(1) pertatu.

(2) konfesatzeko.

LAUGARREN BURUA.

Aurreko konsejuan esan dan guzia egi-
teko ez daukazute iñoren baimenaren
bearrik: aski da eta guzia dago zuen go-
goan; chit erraza da, ala ere, egiten ba-
dezute, chit gogozkoak izango zerate
Jaunari eta zorionekoak zuen zuzenbi-
dean (1), bada eztago bizitza on eta
zuzen bat eramatea baño zorion ederra-
gorik.

Badira beste gauza batzuek chit bea-
rrak salbatzeko, baña nagusien baime-
nik gabe ezin datezkenak: eta oek ager-
tu nai dizkitzutet orain.

Jaungoikoaren agintzeaz gañera egin
bear degu Eleiza Ama Santuak agintzen
diguna: eta lenengoa da igande eta jaie-
gun guzietan Meza entzutea: beraz zuek
ere entzun bearrean zerate; baña ez
dezute zuek autu bear orretarako ordua,
joan bear dezute nagusiai dagokiote-
nean, baña ez utzi entzungabe beñere,
pekatu larri bat egingo zenduketelako.

(1) estaduan.

Nagusiak ezaten badizute ezin joango zeratela, lana egin bear dalako eta lenago dala bearra debozioa baño erantzun dezakezute begirune guziaz igande eta jaiegunetan Meza entzute aetzala debozioa, baizik bear estu bat. Eta lenago nola bai diran Jainkoari diozkagun bearrak gizonenganakoak baño, utzi nai ez badizute Mezatara joaten, irten zaitezte bereala echetik eta utzi ezazute gogoz, naiz asko irabazi, eta zoazte oitura obetako beste eche batera, naiz sari guchia-go izan; onela egiten ezpadezute, Judasen antzekoak izango zerate, bere antzera diruz Jauna salduaz.

Ama Eleizaren bigarren agindua da urtean bein guchienaz aitortutzea (1) eta Komunio Santua artutzea, edo lenago eriotzako zorian egonezkeru.

Aditu (2) zazute ongi eztigula Ama Eleizak agintzen urtean bein bakarrik aitortu gaitzala eta Komunioa artu, baizik guchienaz; au da, Jaungoikoak nai du, konfesatu eta komulgatu dezagula sarritan, egiten duala gurekin jateko bearrean dagoan eta gogorik eztau-

(1) konfesatzea.

(2) entenditu.

kan aurrari ama on batek egin oi diona; esaten dio artu dezala salda piskacho bat goseak il eztezan, baña berak naituke asko jatea. Zuek, nere gazteak, bizitza on eta zuzen bat eraman naitadezute, illabetetik illabetera guchienaz Sakramentu santuak artu bear dituzute, au da, urtean amabi aldiz; ori guchienaz, bada illaren lenengo ostiraletan (Jesusen Biotz Maiteari eskeñi edo kon-sagratua) Komunio Santua artutzeko baimena dan echean daudenak, eztute iñolaz utzi bear; Jaunak ez bakarrik eskatuko digu gaizki egin degunaren kontua, baita ere, al izanik, egin eztan onarena.

Kristau oituran diran echean serbitzeko, edo nagusi jainkozko batzuen artean beren ogia irabasteko zoriona izanik, oien ikasbide onaz artu eztituzten neskachak, aisa irabazi dute Jaunaren kastigua, orrela utzi dutelako bere laguntza.

Billatu bear dezute aitorle edo konfessore on bat, eta beti beregana joan zuen gauzetan. Eztizkiozute pekatuak bakarrik aitortu bear, baizik konsejuak eskatu: esan zaiozute, zuen echetik urruti

ezdezutela bera beste aitarik, eta ikusiko dezute nola konsejatzzen zaituzten, eta zein gogoz zuen onari begiratzzen dion; eta askotan berak billatuko dizute eche on bat; biurriak dira sarritan mirabe asko, eta bere konfessoreari galdetu oi diote echekoandrak ezagututzen ote duten neskach on eta leial bat. ¿Eta badakizute zergatik? erlijiorik eztagoan echean gauz onik eztagoan bezela, era berean erlijiorik ez tuen neskachak gauz onik ezin eman dezakelako.

Chit ardura andia izan bear dezute Sakramentu Santuak artutako egunean aldan ajola eta zuzentasun andienarekin guzia egiten, esan ez dezaten Jainkoaren gauzak batetzeagatik uzten dezutela nagusiari zor diozutena.

Esan badet ere guchienaz illabetetik illabetera konfesatu bear dezutela, orain diot, pekatu larriren batean erortzen bazerate zorigaiztoan, konfesatu zaitetzela albait lenen, ez baitakigu zein ordutan ilko geran, gauza jakiña bada ere ilko generala, eta pekatu larrian iltzen dana ezin sartuko da zeruan, beti betiko inpernua gañera datorkiola.

Pekatu larririk ez badezute ere, Jau-

nari eskerrak, eztiozute gogo guchiagorekin begiratu bear konfesioari, bada ezin artu dezakezuten graziaren apainduri gabe Aldareko Sakramentua, eta Jauna bere biotzean artutzeko eresirik eztuenak, ez kristauaren izena merezidu, ez Jainkoaren laguntza eta estalpea. (1).

Jesus gurutziltzatuaren eta bere Biotz Maitearen ekantza edo imajiña eder oiek eleizetan ikustean, pensatu bear dezute aiek dirala gure Erosle maitagarriaren erantza edo erretratoak: baña izatez eta egiazki bere gizatasun santua dagoan tokia da Zerua eta Aldareko Sakramentua, eta Guzialduna nola baitan ematen digu bere Gorputz chit santua osti chiki batean, artu dezagun noiz nai Komunioan eta bat eguin bere Biotza gurearekin. Jaunak zenbat maite gaituen!

Izan zaiozute Jesus Sakramentatuari chit naitasun andia: eleizan sartzean lenen egin bear dezutena da Sakramentuaren aurrera joan, eta Mezaren aurretik edo atzenean egoitaldia (2) erreza-tzea, au da, sei Aita gure, sei Agur Ma-

(1) amparoa.

(2) estazica.

ri eta sei Gloria Patri, bakoitzaren ondo-
rean chit arreta andiarekin esanaz: «Gur-
tu (1) nai zaitut, Jauna, Sakramentu
onetan nere eta, Zuretzaz aztutzen diran,
nere anaien izenean: erruki, nere Jesus
Maitea.»

Izan ezazute uste (2) osoa Jesus'gan
Aldareko Sakramentuan, eta agertu zaz-
kiozute zuen naigabe guziak, zuen gura-
soakin itzegingo zenduteken sinismen
berberarekin, eta enzuten dizutelako uste
bizian.

Munduan gerta dateke neskame bear-
tsu bati baña andra andi bati gogo geia-
gorekin entzutea, baña Erregeen Erre-
geak eta Jaun guzien Jaunak, gure Je-
sus onak beti gogo geiagorekin aditzen
dio umiltasun andienarekin, sinismen eta
uste bizienarekin bere aurrean belauni-
katzen danari; argatikan esan du, lu-
rrean aurrenekoak diranak sarritan izan-
go dirala zeruan azkenekoak, eta emen
begiratu nai etzaiten gisañoak, izango
dirala an lenengoak.

Ama Eleizaren laugarren agintza ba-

(1) adoratu.

(2) konfianza.

raua da, eta beartzen zaituzte ogeita bat urte betetzean.

Lan asko badezute eta ez bazerate ain sendoak, izan dateke ezin barautu izatea; eztu orduan Jaunak eskatzen ezin litekean gauzik, baña esan zaiozute lenen zuen konfesoari berak erabaki dezan zer egin, eta ezdezazute egundaño bete gabe utzi agintz au zuen iritzia baka-rrik ikusirik.

Jakin bear dezute gañera aragia ezin jan datekean egunak badirala, eta beste batzuek, aragia jan badateke ere, ezin nastu leikeanak, au da, aragia eta arraia jan-otoruntza batean.

Esango dezute zuen eskuan eztagoala zer jan, egia da; baña zuen eskuan dago beintzat egon edo ez egon Jainkoaren legea betetzen dan echean: eta emen esan nai dizutet zer gauza iñolaz ere igaro bear ezdituzuten serbitzen jar-tzean, eta zer eramán, bada gurutze ga-be ez nagusiak ez mirabeak izan ditez-ke munduan; mundua bai beartsuentzat ta bai aberatsentzat beti da egiazko ne-garrezko toki bat, eta aberatsak eta bear-tsuak, guziak dute negarra.

Echetikan echera sartu eta irten ez

ibiltzeko, bada gauza onekin ez nagusiak ez mirabeak ezer irabazten dute, esan dan bezela, onena da non sartzen zeraten ongi begiratu eta argiro itzegitea.

Tokia eskatutzean, esan ezazute: «nik ez det sartu nai jaiegunetan Mezatara joaten utziko ezduten, iru illabetetikan iru illabetera konfesatzerik izango ez detan, eta Ama Eleizaren arraiegunak gordetzen eztiran echean.»

Sartu nai dezuten echea pamili kristau eta on bat bada, chit gustatuko zaite eskatu dezutena, bada ikusiko dute ez dezutela salbatzeko bear dana, eta iñork ukatu ezin lezakena, besterikan eskatutzen; gure animan eztu Jainkoak besterik agindutzen, eta mirabeak eta nagusiak, guziak Jainkoari obeditu bear diote.

Erantzuten badizute debozioa baña lenago dala bearra, esan ezazute, Mezatara egunoro joatea deboziozkoa dala, baña Jainkoak agindutzen duan egunetan entzutea dala kristau baten lenengo bearra, eta etzaitezte iñolaz gelditu Jaungoikoarenganako egintzak eragozten dizuten eche oietan, bada agiri da, berak ongi serbituak izateko nerekoita-

sunagatik (1) mirabeak Jainkoagandikan aldentzen dituzten nagusiak, chit urruti izango dirala berak ere Jaungoikoagandik: eta jakin bear dezute, erlijiorikan eztagoan echean, eztagoala ezer, au da, ezin dateke gauza onik izan, bada sinismenikan eztuan nagusiak, ezdauka karidaderikan, eta karidade gabe, eztu mirabeakin begirunerikan izango, eta artuko ditu bere bururatze biurrien mendeko batzuek bezela, edo animarik ezduten lankai edo makina batzuen antzera.

Badakizute erlijiorik eztagoan echean, ezdezutela inñolaz ere sartu bear, bada ango oituretara jartzen bazerate, erraz galdutzeko bidean jarritzen zerate, eta bigundu nai ezbadezute, au da egin bear dezutena, laster irten bear ko dezute.

Ezdezute gañera bear zaitzuten begiruneak gordetzen etzaitzuten echean inñolaz ere egon bear, au da itzez edo egitez gaizki artutzen bazaituzte eta bear dezuten bizikaiak edo janaria ematen ezbazaitzute.

Echeko guziakin izan bear dezute be-

(1) egokimoagatik.

girune chit andia, ez mirabeak zeratela-ko bakarrik, baita ere kristauak eta gazte ongi aziak bezela, bada kristauen jakinbidea (1), ongi ezagututzen bada eta egin, bera da azierarik (2) onena, isillakizatea lenen agindutzen duana dalako.

Badira emakumeak maisuetan asko gastatu dezatekenak eta gauza chit lirainak dakiztenak, ala bait ere eztaude ongi aziak eta nola nai erantzuten diote beren amari: ¿badakizute zergatik? aztu dutelako chikitan ikasi zuten jakinbidea, argatikan dira latzak beren politasun guzien artean, ongi aziak izan aldeza-kezuten bezela zuek, naiz ez jakin gauza andiak, bada zuen maisua Jaingoikoa bera da, eta Jauna, ain Maisu andia bada ere, guzientzat dago chit eskura, bada ezta saristatutzen diruz baizik naitasunez.

Neskach isil bat ezin izan dateke lantz, baizik begirunez betea, eta bera guziakin bada ona eskubidean dago berari ere guziak ongi begiratzea; beragatikan eztu inolaz igaro bear itzakin gaizki artu dezaten eta anbat guchiago egitez.

(1) doktriña.

(2) edukaziorik.

Ikusten badu izanik bera guziakin begiruneduna ezdiotela berari ajolarikan, eztu geiago geratu bear echean.

Ezdukate mirabeak janaz mañatiak izateko eta nai dutena eskatutzeko eskubiderikan; bada gauza chit parragarria da ikustea zenbait erdigosean edo ogi beltza jaten oituak daudela beren echean, eta gero maiñia besterik ezdiotela jartzen nagusien echeko janari, eta ezlutela ezer ere ontzat ematen: chit gaizki egiña da au; guzia guztatzen ikasi bear dezute, eta ez guchitzat jo ematen zaitzuten janaria, ona bada eta osasungarria, pensatzen dezutela echerikan ezbazenduteke, bear bada non jan izango etzendutekela.

Ezdezute egon bear gañera nagusiak biotz ona duten edo beintzat onekoak diruditen eta mirabeai Erlijioko gauzak egiten uzten diezten, baña berak betetzen ezdituzten, eche oietan, bada ikasbide charrak ematen dituzte beren itz eta egitez; bereala irten bear dezute eche oietatik; ikasbide onak predikatzalle andiak, badira, charrak ere bai oi dirā, eta laster egingo zenduteke, zer ikusi ala ikasi, zer entzun ura esan, badā piskaka

piskaka galduaz joango zinateke gaitzari aurrenetikan zinioten beldurra.

Ez dezute bada egon bear, beren birtute eta ikasbide onakin animako ogia, eta gorputzeko janaria ematen ezdizuten echean, baña bi gauza oek ematen bazaitzute, orain esaten noan beste guziak gogoz igaro bear dituzute, pentsatzen dezutela echekoandrak ere eraman bear dutela, eta ez guchi, bein edo bein zuei supritzearekin.

BOSGARREN BURUA.

Ongi dakizute arbolaren ostoa bat bakarra ere ez tala ibiltzen Jaungoikoaren gogo gabe, beragatikan batzuek luzeak badira, besteak motzak, batzuek bechoak, besteak gorriak, batzuek zatarrak eta besteak ederrak, batsuek beartsuak eta besteak aberatsak, guzia da Jainkoak ala erabaki dualako, eta nola bait bera dan guzien Aita, eta Aita bat, dakigun bezela, chit ona, chit jakintsua, bere semea asko eta asko nai diena, eta

guziak zerurako egin dituan bezela, guziaz ere au irabazteko egokiena zaiten zuzenbidea ematen diona, guziok pozkidaz izan bear degu gure zoriyarekin, jakiñik Jainkoak erabaki duala gerana, bera dalako gu salbatzeko biderik egokiena.

Ezdezazute izan, bada, ondamuraikan (1), ezta ere penarikan, zuek mirabeak zeratelako eta besteak echekoandrak, batzuek lana egin ta jaten dutelako, besteak berriz lanik gabe: Jaunak ala erabaki du, eta ongi egiña dago.

Al balitz zuen echekoandraen biotzean iñoiz sartutzea, eta ikusi zenbat sufritzen duten batzuek senarragatik, semeakgatik eta beren onkarri edo intereretan, gañean dituztela ainbeste eta ainbeste gurutze, chikiak eta andiak, nola izan oidiran pamiliako ama eta echeko buru baten biotzean, uste det eta seguru nago askok esango zendutekela: nik uste nuen zorionekoa zala echekoandra!

Bai, nere gazteak, bai, nolako jantzia alako otza ematen du Jainkoak, esangi (2) batez dionez, eta nola echekoandrai

(1) enbidiarikan.

(2) esaera.

egoki geiago eman oi bait dien, otz geiago ere eman oi die, au da pena eta nairgabe geiago: negarrezko toki bat da mundu au guzientzat, beragatik guziak negar egin bear dute emen lurrean.

Eztago egiazko zorion bat besterikan, eta au, Jauna ain zuzena danezkero, echekoandrak mirabeak anbat iritsi dezateke, bada bere uste osoan eta biotz garbi batean dago guzia.

Pozkidaren iturria ezta dirua, baizik gauz onak egitea: ongi bizi bazerate beti izango zerate atsegiñez beteak, eta ezdaukazute inongo gaitzikan zer beldur izanik; baña gaizki bazabiltzate beti izango dezute gogo charra, guziakin asarretuko zerate eta guzientzat izango zerate eramezgarriak, eta guziak sortuko dizute konzienziako pakearen bearra.

Guziok alegindu bear degu aldiran birtute guziak izaten eta oetan aurreratzan; baña bakoitzak alegindu bear du batez ere bere zuzenbideari geiena dagozkioten birtute aiek ikasten.

Chit asko pensatu bear dute echekoandrak urko lagunarenganako kairidade eta naitasunaren birtuteaz (beste asko bear badituzte ere), eta mirabeak

asko eta ongi ikasi bear dituzte beren aldetikan isiltasun eta eramankizuneko birtuteak, oek diralako Jaunak geiena eskatutzen dieztenak: sarritan arkitzen badira ere eramankizun andiaren bearreran beren mirabeagatik echekoandrak; zenbaitek ezdiezte eramaten neskameai egun batean eta bestean baizik erruki diotelako ikustean dala gogorra, gauzak ikasten chaldana, eta beste aldetikan aizez betea, eta echetikan botako baluteke, Jainkoak daki zer litzateken berezaz!, eta eramaten diote geiago ezin duteneraño.

Eztu onek esan nai echekoandra guziak dirala onak, eta mirabe guziak charrak: ez ta orrelakorik, ez guchiagorikan ere; badira echekoandrak chit onak, baita ere chit charrak; badira mirabe chit onak, baita ere chit charrak: baña ezdezute zuek onetan pensatu bear; zuek pensatu bear dezutena da (bada onek ardura dizute) onak eztiran emakumak, echekoandra izan edo naiz mirabe beartsuak zuzen-zuzen dijoaztela inpernuko zulora; emakuma onak, garbiak eta onraduak, izanagatikan beartuenak, zuzen-zuzen Gloriara, izateko Jaunarekin,

Ama Maria eta Aingeruakin betiko zorionekoak, artutzen dutela onela munduan izan zuten eramankizun eta iñiltasunaren eta Jainkoagatikan igaro duten guziaren saria.

Echekoandrak emango diote Jaungoikoari beren bizitzaren kontua eta nola bete dituzten beren egitekoak; eta mira-beak eman bearko dute berena.

Nere gogo bizia zuek guziok gloriara joatea, izango litzake eta argatik lagundu nai dizutet gauza oen bidez bera irabazten; nai nuke chit gogoan artutzea, jakinbide edo dotriñan ikasten dezuten bezela, eta batez ere egitez jarritzea: beragatik kezkarikan gabe artu ditzaizuten, zuen eskuetara liburucho au etorri baño lenago, aleginduko naiz Ama Eliza Santuaren baimena iristen, jakin dezazuten etzaitzutedala engañatutzen, eta esaten dedan guzia zuen zorionerako dala emen lurrean eta beste bizitzan.

Badakizute esanik daukala Jaunak, bere oñordeai (1) aditutzen dieztenak berari aditutzen diotela, beragatikan Eleizak esaten badizute Apaiz baten aotik

(1) ministroai.

nere konsejuak onak dituzutela eta ongi zaitzutela berak jarraitzea, da Jainkoa bera zerutikan jatsi eta nik diotana egin bear dezutela esango balizuteke bezela: ¿gingo al zenduteke orduan? baietz erantzungo dezute guziok: egin ezazute bada, nere maiteak, ezdet bada argitaratuko liburuko au Ama Eleizaren baimenikan gabe, asko nai dizutedalako eta zuen ona besterikan billatzen ezdetalako, eta chit seguru izan nai nuke ona dala esaten dizutedan guzia.

Agertu dizutet išiltasuna eta eramankizuna dirala bi birtute zuentzat chit bearrak, eta chit egoki noski; eta ain itsusiak badira zorabioa eta arrokeria nagusietan, ¿zer eztira izango mende-koetan?

Esaera batek dio eztala ezjakiña baño gauza ausartagorik, eta ezta gezurra; zenbat eta guchiago batek jakin, orduan eta geiago uste du arrazoia duela: argatik zenbait mirabe dira arro-illunak (ez gaizki artu, etzerate zuek oietakoak, ala baziñateke etzenduteke irakurriko liburu au, eta uste izango senduteke ezdezutela iñoren konseju bearrikan), eta uste dute umillatzea dala beeratzea,

eta ala ez ezergatikan, ez inorenгатikan umillatzen dira; echekoandreak zerbait esaten badu, deadar egiten dute, eta echekoandrea berotzen bada, berak kiskaltzen dira, uste dutela, isiltzen badi-ra, egin bear luteken bezela, geiegi beeratzen dirala: onelakoak eche on batean ezin iraunikan arkitzen dira, baik ardangela edo onetako tokiren batean, bada oetan guziak berdiñak oi dira eta begirunerikan gorde bearrik ere ez da.

Jakin bear dezute, nere gazteak, umiltasuna zerutikan jachitako birtute bat dala; Jesus Gure Jaunak ekarri zuan, eta bere itz eta, egite onez erakutsi zigun: erregeen Erregea zan, eta jaun guzien Jauna, ala ere beti beartsu bizi nai izandu zuan, eta bere au santutikan esan digu: «Ikasi ezazute neregandikan, zein isilla naizen nere biotzean, eta arkituko dezute zuen animako pakea».

Ezta gauzik ainbait beeratzen duanik basatia izatea eta asiera on bat zer dan ere ez jakitea baikik: au da, nere gazteak, auñen, chit beeratzen duana: ezta baña onela mirabe isil bat; berak, len esan dan bezela, izan ez badu munduko

maisuetatikan aziera on bat, artu du bere jakinbidean zeruko Erakusleak esaten diona: «Asarrearen kontra, eramankizuna, arrokeriaren kontra, umiltasuna.

SEIGARREN BURUA.

Esan dizutet aurreko konsejuetan iru gauza dirala iñolaz ere igaro bear ezdituzutenak; eta berakgatik ehetik aldan lenen irten bear dezute: oetatik lenengua da, dakizuten bezela, erlijio santuko gauzak betetzen ez uztea, au da, Jaiegunetan Meza santua entzutea, illetik illabetera konfesatzea, eta azkenik, osasun ona dutenak arrai egunak echean ez gordetzea, Ama Eleizak agintzen duanean: Jainkoa serbitzen ez duten nagusiak, bere lege santua beteaz eta besteak ere bete dezaten aleginduz beren echean, ezdituzute zuek ere serbitu bear, bada nagusien eta mirabe kristauen lenengo bearra da Jainkoa serbitzea eta maitatzea beste gauza guziak baño

geyago guzien Jaun eta Jabea bera dalako.

Utzi bear ezdezuten bigarren gauza da, jateko bear dezutena ez izatea eta illaren asieran izendatutako saria ez ematea; zuen egitekoaz zuek ere zintzoak izan bear dezuten bezela, nagusiak ere bete bear dituzte bereak, eta bear chit donetia da sari izendatua eta bear dan janaria mirabeai ematea.

Irugarren gauza, iñolaz ere utzi bear ezdezutena, da ez itzez ez egitez gaizki artutzea; badute nagusiak mirabea ehetikan ateratzeko eskubidea, baña ez gaizki ibiltzekoa: au da mirabeak biderik ematen ezbadu, bada berak nagusiai oker egiten badie guzirako oña ematen du.

Ez dezute gañera osasunaren kalteko lanik ematen utzi bear: alakorik balitz bereala irten bear dezute ehetikan, baña izan dedilla egiazki geiegiko lana danean eta betikoa: onetan kontuz ibilli bear da, bada mirabe geienak serbitzen jarritzen dira beren ehetan lan gogorragoa dutelako, eta ez personen antzera, baizik abereak bezela aisago izan oi diralako. Erri andietako edozein langi-

lleak baña neke gogorragoa dute sarritan zenbait neskach gazteak beren eche-tan, eta gaizki janda gañera: ala ere sarritan gertatzen da askok, ain bizitza nekatsua eramatea oituak daudenak, ez aldira serbitzen jarritzen, ezpaz beteta esatea; ezin dutela nagusien echeko lanakin, ogia eta eztia bada ere, beren echean zuten nekearen aldamenean, eta gañera ongi janda.

Jainkoaren legea nagusiak betetzen duten eche bat arkitzean (Jaunari esker-rak asko arkitzen diran bezela), ongi artutzen bazaituzte, bizitzeko bear dezutena izanaz eta saria zuzen artuaz, orduan guzia igaro bear dezute, nere gazteak, eta guzia eraman gogoz, bada eztago arantzagabeko arrosarik, ezta ere gurutzegabeko bizitzarik, eta guziak du mundu onetan bere alde ona, eta bere alde charra.

Ez dezute Jaunaren barkapenik, eche on bat galdutzen badezute, eramanki-zun piska bat ez izateagatik: errietan egiten badu echekoandrak, isildu zaitzte, arrazoia izango du-ta; eta era-kai gabe inoiz egiten badu, isildu zaitzte orduan ere, badakizute beste alde-

tik ona dala, pensatzen dezutela orain arrazoi gabe asarretzen bada, beste askotan pazientzian eramaten duala dirua alperrik gastatzen, ikusirik ezin jan dirala sarritan gauzak, batean kearretuak irtetzen diralako, bestean kiskalduak eta bestean gordiñak: danik sukalkiñik onenari gertatu leioken gauza da au, eta neskameak ere bein baño geiagotan aztu oi dituzte beren egitekoak; ala ere onak badira eta zuzen bete oi badituzte beren egitekoak, chit gaizki egingo lukean bezela echekoandrak egun bateko utzegiteak ez eramanteaz, era berean chit gaizki egiten dute mirabeak igaro nai ezbadute zer-bait, uste dutelako ezdutela nagusiak bein edo bein arrazoirik, beste aldetikan onak badira oek: sarritan eramankizun piskacho bat ez dutelako galdutzen da eche on bat, eta milla aldiz geiago izan bear da beste batean, eta gaizki bizi. Oroitu zaitezte esan onezaz: «Sufritu nai eztuanak, ezdezala bizi nai izan;» bada bizitzak beti du lagun gurutzea, bai echekoandreentzat ta bai mirabeentzat. Sinistu zaidazute, nere gazteak, eche onean bazaudete, ez dezazute inñolaz ere

utzi, pensatu ezazute piskacho bat ez izan choroak: zerenetik bizi albazerate ez jarri serbitzen, baña zuen ogia irabazi eta gurasoai lagundutzeko beste alderdirikan ezbadezute, ezagutu bear dezute zer eramana beti izango dezutela.

Echeak personak bezela dira; eztago bat bakarrik utsegiteren bat eztuanik: batean minkastuko zaituzte echekoandra geiegikoa izan eta gauzak chit ongi egiñak nai izateak, bestean berriz nagusia kopeta gogorrekoa eta deadarzalea izateak. Aurra badaude, pazientzia izan bear dute neskachak, baña jostatu ere oidira eta lasaitu oekin: persona zarrak badaude, beren lelakeriak badituzte: eta ezin dateken gauza nola dan zerbait edo beste eztan eche bat arkitzea, esan dan bezela, chorakeri chit andia da ohea arkitzeko esperantzan orain dezu-ten ona uztea. «Aldatu zetzakezute gurutzea;» Kenpisen liburuchoan esaten dan bezela (Imitazioan, 2, lib. 12 bur.); baña beti eta alde guzietan arkituko dezute gurutzea, eta eraman bear ko, guziok daramakigun bezela.

Utzegiterik gabeko neskamea nai duan echekoandrak egin lezakean gau-

zarik onena da, bera serbitzea eta iñoren billa betik ez galdutzea, bada eztu arkituko; eta guzia atsegiñak dan echea, au da lora eder bat eta arantzarik ez, arkitzeko ametsak dituan mirabea itzuli diteke berera, bere gogokorik arkituko eztualako. Eztakizute, nere gazteak, zer ondasunak dakatzien echeak aldatzen ez ibiltzeak: lenengoa eta ederrena da Jaunari chit atsegiña izatea, bada urteak eramaten baditu neskat̄s batek eche batean, agiri da ongi dabillega, eta ezta gauzarik ainbat atsegin Jaunari ematen dionik, gure zuzenbideko eginkizunak ongi betetzen ditugula ikustea baizik.

Bakar bakarrik eche batean egoten zeratela bilduko dituzute zuen zartzarorako lau kuarto, bada sartu eta irten bazabiltzete, urte bateko irabaziak zortzi egunean joango zaizkizute ostatu eta joan-ettorrien artean. Luzaro badaude, nagusiak naitasuna artzen diezte mirabeai, begiratzen diote beren onari eta izan oidira beren guraso ordekoak: amar edo amabi urte serbitzen daramazkien echean, ezta egundaño bialdu-

tzen neskacha eritegira (1) gaitz larri batean erortzen dan egunean. Jakin nai badezute karidadeko toki oietan iltzen diran zorigaiztoko aien bizitza, bat zue-na ezin entzungo dezute lotsatu gabe bear bada, besteak beti arkituko da arroak izan dirala eta lotsagabeak, eta guzieta-tik batek ere etzituen noski urte asko eramango eche batean; ala balitz, etzuten eritegira bialduko, eta, besterik ezin dalako, sartu baluteke ere, sarritan gertatu oidan bezela, edo gaitz itsaskorra dalako, edo aurrak daudelako eta tokirik ez echean, etzuten orrela utziko, bada ez dute nagusiak estutzen mirabe on bat gaitzean ikustean, baizik barruan edo echetik kanpora beti diote ardura andia.

Esaten da eztala neke gabe bidechi-gorrik edo atajurik; eta alaſen da, ene gazteak, batzuei eta besteai ain egoki zaiten, nagusien eta mirabeen arteko naitasun au: aien laguntzaren bearrean bazaudete zuek, aiek ere zuen lan eta laguntz onen bearrean daude pakean bizitzeko: ezta beingoan sortutzen dana naitasun au, bere beta bear du; nagusiak

(1) hospitalera.

artutzen diezte mirabeai naitasuna ikusten dutenear zintzoak eta langilleak dirala, eta mirabeak berriz nagusiai ikustean ongi artutzen dituztela eta beren suerteaz chit ardura dutela.

Auñen da ondasun pozkidagarri bat, echeetan sartu eta irten ibilliaz beñere irichiko ezdezutena.

ZAZPIGARREN BURUA.

Zuek guziok dakizkizute Jaunaren legeko aginteak, eta berakatik, ongi dakizute zazpigarrena ez ostutzea dala. Askok uste dute lapurreta agiri bat egiñezarekin (presondegia merezi duten oietako bat), agintze au bete dutela: au ala baltz, eznizuteke aitortuko noski orrelakorik, ezdezutela zuek zer ikusirik ostu oidutenakin.

Itzegiten det, ene gazteak, itz onek «ez ostutzea» asko esan nai dualako, zuek, batzuek beintzat, ongi ezagutzen ezbadezute ere iñork agertu ezdizutelako: orregatik ajola aundirik izan oi ezdezu-

te chit gaizki dauden gauza askotan utsegiten, guziak edo geienak egiten badituzute ere; eta auſen da nik esan nai dizutedana, bada pekatu asko egiten dituzute eta sarritan utsegin batere kontuan jausi gabe.

Eman dateke ez lapurtutzea eta ala ere ongi ez serbitzea; ez bakarrik ez dezute dirua, mai-gauzak, jantziak eta nagusiai kendutzeko eskubidea (badakit ezuala liburu au irakurriko onetarako kopeta dutenetako batek ere); badira gañera zenbait gauza gai onetan kutsutzen zaituztenak, eta oyek agertzera noa. Eche batean serbitzen jartzen zeraten une (1) beretik, nagusien bear obligazio da, esan dan bezela, jaten eta izendatutako saria ematea, ikasbide onak ekartzea eta bere egitekoak ongi betetzen dituan mirabe bati bear zaion begirunea gordetzea; au egia da, baña egia ere da, zuek ere badezutela esango detan guzia betetzekoa.

Izan bear dezute chit begiratuak eta zintzoak ongi betetzeko Jaunaren legeko laugarren mandamentua; bertan agin-

(1) momentua.

tzen zaigu aita eta ama onratzea: onek esan nai du urteetan, jakintasunean eta goiendean edo gubernuan gu baño geiago diran guziak onratu bear ditugula: beraz ikusten dezute ez betetzea, utsegite andi bat dala. Jainkoari eta zuen gurasoai ezin uts egin badiezute, ezin uts egingo diozute nagusiai, bada aien oñordekoak dira. Serbitu bear dituzute ordu guzietan; bakarrik jan eta lotako orduak dira beti zuenak; baña besteak nagusienak dira, eta beragatik ordu erdi bat asko dan egiteko batean, bi irauten badituzute, sarritan egin oidezuten bezela, ori da nagusiai beta au lapurtutzea, eta beren laguntzan bear dezuten begirune eta zintzotasunari uts egitea.

Plazara zoaztenean ardurarik artutzen ezbadezute eta erosi gauza charrak eta garestiak, eta egin bear dezutenari begiratu eta onera eta merkeena billatu bearrean, batzuekin eta besteakin izketan jartzen zeratelako, eta berriketan bearbada saltzalleakin berakin, esan zentzakezute, egia da, eztezutela sisatzen dirurik, baña echekoandrarentzat gauza batetik bost zentimo bestetik amar kenduko balira bezela da, bada dirua la-

purtzen ezbadezute ere, uzten dezute saltzalleai lapurtzen, ardura guchi artuaz, bearra dezuten bezela, ogia ematen dizuten echeko onarekin.

Sarritan esaten dute echekoandrak sisatzen dutela mirabeak, eta ezta egia; baña zuek daukazute kulpa, bada zuen ajola guchi onekin erosten dituzute gauza charrak eta garestiak, eta dirudi ez-tana, eta zuen leialtusuna zalantzan jartzeko oña ematen dezute.

Beartuak zaudete, eta bera da guzietan larriena, zuen kontura jartzan dituzten aurrak egundaño bakarrik ez uztea, ez echean ez kalean: lotsa da toki agirietan ikustea, neskach asko beren *kutunakin* berriketan ari diran artean, beren kontura dauden aingeruchoak dabilzela emen erori an goratu, gurdi edo kocheren batek zapaltzeko zorian: au egiten dutenak dirua arrapatzen dutenak baño milla aldiz lapurragoak dira, bada lapurtutzen dute beren semeak (oyek dira gurasoentzat ondasunik ederrrenak) ematean nagusiak aietan jarri duten uste ona.

Lapurtutzen dute era berean nagusien uste ona, aditu nai duan guziari,

echean gertatzen dan guzia esaten dioten mirabe itz jarioberrichu aiek, itzaldi andiak egiñaz atekontuartzaleakin, auzoko serbitzalleakin eta egitekoren batera bialdutzen dituzten echeetan: eta ipui batek dion bezela «asko itzegiten dutenak asko utsegiten dutela,» alāsen gerta oi da sarritan onelakoakin; asko itzegiten dute eta zer esaten duten jakin gabe, bada nola nagusiak emango ezбайдuten noski esan eta egiten dituzten gauza askoen arrazoia, sarritan artutzen dute, esan oidan bezela, loratik arbia, eta ereiten dituzte auzi andiak eta milla naigabe echeetan, eta beren mingañagatik guzia.

Zuek, nere gazteak, izan zaitezte onak eta zintzoak guzian, eta ezdezazute bear dan astiya besterik gastatu kallean, eta chit gaizki egingo lukean bezela echekoandrak zuenak diran ordu oietan egitekoren bat jarriko balizuteke, zuk ere chit gaizki egiten dezute arenak diran orduak aste egunetan kenduaz: ordu bat asko dan lanbide edo mandatuan iru luzatu bearrean, zerbait erosterā edo egitera joan bear badezute eta irtetzea gertatzen zaizuten egunerako

ezin utzi albaditeke, askoz ohea da echekoandrari baimena eskatutzea, artutzen dezutela lanari kalterik guchiena egingo dion ordu bat, eta baimen onekin pake guzian zijoazteke, bada bide onez zoazte.

Begira dakiozute chit ajola andiz zaudetan echeko onari dagokion guziari, eta ez dedilla bear litzakean baño geiago gastatu zuen ajola guchiagatik, bada kontu estua eman bearko diozute Jaunari.

Ez utzi beñere bakarrik zuen kontura jarri dituzten aurrak, ez lagunagatik, ez kutunagatik (1), uzten badituzute, nagusiak zuetan jarri duten uste ona esan dan bezela, lapurtutzen dezutelako. Izan dezazute beren aurrean esaten dituzuten gauzetan ardura andia, baña chit andia, bada loiak eta zatarrak badira, lapurtutzen dezute beren aingerutasuna, egiten dezute deabruaren lanbidea eta chit kontu estua eskatuko dizute beren animagatik Jaunak eta bialdu chit kastigu gogorak.

Izan ezazute zuen mingañaz chit kon-

(1) novioagatik.

tu andia barruan eta echetik kanpora, ez dezazuten naigaberik zabaldu ez echeetan ez mirabeen artean.

Onela egiñaz, zuzenkiro serbituko dituzute zuen nagusiak eta merezitu oen eta Jainkoaren bedeinkapena; baña egin nai ezbadezute, Jaunari kontua eman bear ko diozute, eta izango zerate zorigaiztokoak, eta ezagututzean nolakoak zeraten, etzaitzate iñon naiko, bada gaiztoa eta chit errutia litzaken bezela nagusia diru charrez pagatuko balizuteke zuen saria, gaiztoak eta chit kulpagarriak zerate zuek ere okerkiro serbitzen badezute.

Eguneko sarian edo jornalean zabilzetzen gazteak, gabero egin bear dezute zuen konzientziako esamiña labur bat, pensatuaz utsegin ote dezuten agintza onetan, dala astiya eta asti edo beta oni dagokion saria nagusiai lapurtuaz, dala ordu izendatuan lanean ez jarriaz, dala egin al dezakezuten eta bear dezuten baño lan guchiago egiñaz, dala azkenik, bear bezin ongi lan au ez egiñaz. Zuei ere esaten dizutet mirabeentzat esan da-ta: nagusiak eta agintariak ongi eta legezko diruan pagatzen badizute illaren edo

astearen askenean, eztiozute zuek ere serbitze char eta okerraz erantzun bear, baizik aldan ongiena guzia egiñaz; bada ori da zuen bearra, eta ala egiten ezbadezute kontu andia Jaunari eman bearko diozute.

Echeetara jostera edo orrazketara joan oi zeratenak, ez utzi bost minutuan besterik ez bada ere, gaiztakeriaz (1) edo gaiztakerigabe zuen mingañaz egindako pekatuen gaberoko esamiña: uste det zuen eginkizun edo laneko bat baño geiago arkituko dala inpernuan, mutua izan balitz batere dudarik gabe orain zeruan arkituko zana.

¡Onelako zenbait gazte dira, eche batean gertatzen dana bestean zabaltzen dutelako, senide eta adiskideen arteko naigabe garratzen iturria!

¡Zenbait bider gazte oetako batek, eche batean ikasi edo entzundako gauza, gaizki aditu eta bestean esan zuelako, okerrean jartzen da andra on eta birtute-tsu baten zuzentasuna! Egia da, eztala zuena kulpa guzia, emakume askok gogoz entzungo ezbalituzteke, lau gauza baño

(1) maliziaz.



geiago išilduko zinduztekelako, baña diot berriz ere len esan detana, echeko-andrak emango diote Jaunari beren pekatuen kontua eta zuek zeurena.

Badakit gañera askok itz egiten dutela itz egiteagatik bakarrik, kalterik ekartzeko uste gabe; baña pensatu bear dezute (bada orretarako eman dizute Jaunak adimena (1), eta ez ezertarako serbitu ezdezan), pensatu bear dezute, diot berriro, edozein tokitan arkitzen dirala jostunak eta orrazleak, eta eche batera deitzean esker andiz artu bear dezutela, bada deitu zetzaketen beste bat, eta zuek artu zaituzte; gogokoa ezbadezute, zuen eskuan dago ustea, baña deitzean egindako laguntz ondoren, ezdezute gaizki itzegiteko eskubiderik beñere: dirua lapurtutzea baño askoz larriagoa da persona edo eche baten izen ona lapurtutzea, aiša esagutuko dezuten bezela esango detanaren bidez.

Duro bat arrapatutzen badezute, irabazi dezakezute eta itzuli; baña ontzi bateko ura isuritzen badezute, danik azkarrena ibilliagatik, ezdezute osotoro

(1) entendimentua.

bilduko egundaño; ezin dateken gauza da: antz berekoa da persona baten izen ona; mingain charren batek bein galdu eta loitutzen badu, geiena damutu eta bere aldetik ongi itz egiten ekiñarren beti geratuko da zalantzen bat egia ote zan edo ez beragatik esan zana.

ZORTZIGARREN BURUA.

Ez arritu, nere gazteak, askok ez irakurtzen, ez eskribatutzen, ez Dotriña, ez ezer jakitea; badira batzuek, gaiñoak erdi basatiak diranak: baña gurasoak ezer erakutzi ez badiezte, berak ere chit illunak diralako, eta izanik gañera beartsuak, zerekin erakutsi izan etzutelako, ezin ezer esan, bada ezdute gaiñoak kulparik onela azi badira, bestera guziok errukitu bear ditugu eta alegindu beren onean.

Baña neskach gaiño oiek errukia ematen dutela eta zuek ere izan bear diezutela, diotan bezala, eta beragatik alegindu al dezuten guzia illuntasun orretatik

irten ditezen, era berean ere diot, urte biko bat uri andi batean eramanez bere baztarretik irten zan egunean bezelako pistichoa dan gazteak, ezdaukala Jainkoaren barkapenik, eta chit zorigaizto-koa izango dala.

Jaungoikoa chit zuzena da eta beren baztarretik irten gabe jaio eta iltzen diran eta bizitza guzia bein zai eramaten duten gazte oiei, beren antzeko ezjakinakin eztala itzikan egingabe, oiei pekatu asko barkatuko diezte Jainkoak, ez geiago dakitelako ta ez geiago ikasteko erarikan izan dutelako.

Bañan Igandetako ikasolak (1) esku-
ra dauzkaten eta irtetzen diran egunean,
naitasunez beteta, kristau onak eta mira-
be zuzenak izaten, egunen batean emaz-
te eta echeke ama on batzuek izan
ditezen, erakusteko beti jarriyak dauden
emakume on aben billa joan bearrean,
ergelkeri eta dantza galgarrietara naiago
duten neskatš choro aiek, chit kontu an-
dia, diot berriz ere, kontu chit andia
emango diote Gure Jaun eta Jaungoi-
koari.

(1) Eskola dominikala.

Esango dezute aste guzian lan egin ondorean, bidezkoa dala piska bat zabaltea, eta jostatu nai dezutela: egia da, baña nik esango dizutet, ikasola oetan ikasi eta jostatu biak egiten dirala; ikasten da jakitzea beartuak zaudeten Dotriña, bada ezbadakizute zer diran, gaizki beteko dituzute kristauak bezela dituzuten kutur edo obligazioak eta oek ezdituzute noski ikasiko dantzetan.

Ikasiko dezute irakurtzen, eskribatuzten eta aziera (1) ona izaten, eta jarriko zaituzte urtearen atzenerako, ain ezjakinak ziñatelako, esan eta egin zinduzten moldakaizkerien chit lotsa andia artuko dezute.

Au ikasola oetara bakarrik joaten zeratela: baña gañera, Barzelonan edo Maria chit Garbiaren Erlijiokoak dauden beste edozein tokitan bizi baziñate, ezdakit nola esan zein choroak eta zorigaiztokoak izan bear duten ez ama ain onak ezagutu, ez arratsaldea berakin pasatzea joan nai duten gazteak, bada beti dauzkate atea irikita, jaietako egunetan artutzeko galdu ezditezen,

(1) edukazioa.

nork begiratu ezduten neskat̄s onak.

Jainkoak kontu andia eskatuko dizute, esan dedan bezela, bada ezdezute eskuan jartzen dizkizuten laguntz eder oek artu nai. ez zuen animaren one-rako bakarrik, baita ere zuen zorionerako munduan; bada zorigaiztokoak izatez gañera, choroak dira onelakoak eta ezdute ezagututzen beren egizko ondasuna; ongi ezagutuko baluteke, aiša ezagutuko ere luteke chit ardura zaiotela ikastea, eta orain illean bi duro besterik irabazten ezbadute nekerako astochoko batzuek besterik eztiralako, mirabe adituak eta ongi aziak izanezkero, biar edo etzi geiago irabazteko oñean daude, bada zerbait dakitenezkero, geiago eskatzeko eskubidea daukate.

Esaten dute chit tristea dala neska-meen izatea, baña nik ezetz esango dizutet: mirabe on batek beti ditu echeak, eta zenbat geiago jakiten alegintzen dan eta zintzoagoa izan bere eginkizunean, ainbat arkituko ditu eche obeak.

Esan zadazute; ¿beartsuen artean mirabe on batek baña nork du bizitza obeagorikan? iñork ere ez: mai ona dauka, echea eta jazkera garbia, eta lau edo

bost duro bere gastuetako illaren atze-
nean: itzuli ditzatzute orain, itzuli gaur
lana bai eta biar ez dabilten langillea-
kin ezkontuta dauden zuen lagun eta
ezagunetara begiak, eta ikusiko dezute
naigabez beteta bizi dirala gaiñoak; zuek
baño lan geiago egiñaz, ala ere amar
zentimo gabe sarritan illaren azkenean,
jaten duten ogia zorretan dutela eta so-
ñeko jantziak besteren mendean utzi
bearrean.

Jarri aien eta zuen zoria berdin-
tzan, eta chit zorionekoak arkituko
zerate, eta bein baño geiagotan zuen
echekoandrak berak baño oin obean:
bada chit lasaitasun andian ez ba-
daude, ;zenbait bider, zuek kantu
alaiean ari zeraten artean iñongo bu-
ruazterik gabe sukaldean echekoandra
gaiñoa negarrez dago bere gelan, pensa-
tzean senarraren irabaziak echeko gas-
tu guziak estaltzen ezdituela!: a! zuek
arkituko bazinateke egun batzuetan
echekoandraren tokian eta jakin zenbat
eramaten duan, arreta geiagoz begi-
ratuko ziñioteke noski echeko juañ eto-
rriai.

Ezta ez tristea neskame on baten bi-

ziera, bada bera alegintzen bada kristau on bat bezela eta bere bearrak betetzen dakian mirabe zintzoa izaten ikasten, etzaio eche on baten bearra izango eta ongi izateko bear duan guzia.

Tristeia da ezer ezdakiana eta jakin ere nai eztuana, bada astuna eta atzeratua goa da egunetik egunera: argatik ezin egon ditezke onelakoak eche on batean, baizik guzia libre dan eta guziak berdiñak diran eche zabarretan, aragizkoak geralako guziok, sarritan erantzun oi dezuten bezela, pensatu gabe ezurrezkoak eta aragizkoak badira ere Erregeak eta mendekoak, bakoitzak bere tokian izan bear duala, ez guziak serbitu dezatekelako, ta ez guziak serbituak izan.

Zuek nagusiai obeditu eta begirune chit andia gordetzeko bearra dezute, eta aiek berriz beren nagusiakin au bera egitekoa.

Nere alabak, maite itzazute zuen ona ain gogoan duten eta zuei erakustera jartzten diran emakume oiek; maite itzazute zuen animak irabazten lagundutzeagatik bakar bakarrik beren echea eta gurasoak usten dituzten emakume maigarri oiek, eta irakurtzen ikastean,

ikusiko dezute zein atsegin andia dezu-
ten zuen liburukoetan irakurritzea
Jainkoari eta lagun urkoari dizkizu-
ten bearrak: orduan ezagutuko dezute
zer ziñaten lenago eta zer zeraten orain
eta Jaunari eskerrak ematen aspertuko
etzerate.

Ez uste izan tristea dala irtetzea to-
katzen zaitzuten arratsaldea zerbait
ikasten igarotzea, bada guzirako dago
beta, eta ikasola oietan ere izan oi dira
beren jostaerak; inauteriegunetan ko-
medi chit politikak egin oi dituzte, noi-
zean bein gauzachoren batzuek suertean
jartzen dira, eta ezer gastatu gabe gu-
ziaz gozaten zerate zuek.

Astakuma bati galdetu albalekio gi-
zon biurtutzea naiko lukean eta eran-
tzungo balu ezetz, ohea dala beti asko
gelditzea, zer esango zenduteke? etza-
tzute bada zerenganatu ipui au, eta di-
rurik ez izanagatik, zerbait ikasi eta
emakuma onkai batzuek izateko era
Jaunak ematen dizutenezkero, ezdeza-
zute betiko ezjakin batzuek nai izan.

BEDERATZIGARREN BURUA.

Nai nuke chit arretaz konseju au irakurritzea, bada uste det geiena ardura dizutenetakoa dala, chit bearrak badituzute ere orandañoakoak. Beartsua edo aberatsa, echekeandrea edo mirabea, ¿zer da emakuma baten lorarik ederrena? Burua chit goien eraman al izatea, ezarria daukalako garbitasunaren edo kastidadearen agerbidea. ¡Ai! zorigaiztokoa bear etziran konfiantzak artu dituala gizon batek esan aldektion gaztea! Eztu nai Jainkoak ona eztalako; jende onraduak botatzen dute, eta bere ondarena ekarri dion eta bere laguntza izan bear lukean gizon galdua da lenengo sorbaldak ematen diona, bada lotsa izango luke bere emazte egiten.

Ez eman, nere gazteak, ez eman egundaño, gizonezkoai konfiantzarik; eta asi gaitezen goienekoetatik, bada gaiztoak irtenezkero, berak dira okerrrenak. Echean badaude zaldun gazteak

serbitu bear dituzute eta obeditu, bada echeko semeak dira eta orretarako saristatutzen zaituzte oien gurasoak; baña benturatzen badira bear eztan edozein arinkeri zuekin izatera, esan dakiozute bereala bear dan begirunea gorde dezatela, eta gero zoazte laſter laſter echekoandrari esatea, zaldunak paltatu dizutela edozein gizonak beartsu edo aberatsak, emakuma onradu bati izan bear dion begirune edo errespetoan. Ikusten badezute ezuala echekoandrak ardurarik artutzen, edo artuagatik, zaldunak berriz ere egoki eztan gauzaren bat esaten badizute, zoazte bereala eche-tik, bada irugarren aldiz au bera gertatu artean egon nai badezute, agiri da ezdezutela lotsik edo laſter galdutzeko zorian zaudetela. Pensatu ezazute ongi zer nai duan jaun edo zaldun orrek: zergatik nai luke maite dezutela esatea? Bear bada zuekin ezkontzea gogoan dualako? Ez, nere alabak, ez utsirudiez (1) bete: zaldunak jostatzeko nai dituzte mirabeak, eta gero baztarrera uzten dituzte, par egin, eta beste batekin

(1) ilusioz.

ezkondu aberatsa eta ederra bada obe: orduan zaldunari begiratu zion mirabe choroa geratzen da esanaz: ¡nork esan onelakorik!: bada nik esaten dizutet, erregeak artzai-neskachakin ezkontzen komedietan bestetan ikusten ez-tala; egunoro ikusten da esan detana, ala ere ez dezute ezagutu nai. Jakin bear dezute engañatutzeko, ezdizutela gizon bat batek ere esango, baztarrean utsiko zaituztela gero; bestera, esango dizute bizitza eta anima guziz beti maitatuko zaituztela: erantzun dakiozute bada, esan dezala, eta zuek ere mundu guziari esatea nai izan dezala, zuekin ezkontzen dala, bada lotsa balu jakitea mirabe baten kutuna (1) dala, lotsa geiago emango dio senarra dala esateak.

Esango dezute etziñatela nagusiakin ezkonduko litzaken lenengo mirabea izango; eta nik erantzungo dizutet egia dala, baña milloi bakoitzetik bat dala geienaz, eta bat ori zuetako bat izatea chit zalla da; esango dizutet gañera batiere erlijiorik duan gizonak, emakuma

(1) nobioa.

bati nai dionean, lenengo egiten duan gauza dala bear dan begirunea gorde-tzea, bada lotsa duan gizonari etzaio gustatzen ura eztuan emakuma bat bere emazte egitea.

Bere kopeteko izerdiaz ogia irabazten dagoan mirabe gaiñoari bear eztan gauza egin nai lioken zalduna da, ez bere echearen, ez bere gurasoen izenari begiratzen dion gaizto bat: jostatu nai badu, arkituko du zorigaiztoan non jostatu, bere echea naigabetu gabe. Jaun oiek lotsik balute, begiratuko lioteke noski beren echeari, eta batere biotzik balute, errukituko lituzteke beren nagusietan gurasoen onordekoak, ez beren onorearen (au da beren ondasun guzia) lapurrak billatzen dituzten neskatš gaiño oiek.

Zerbait arrazoiarekin esatean, zuen echekoandrakin sarritan dezuten ausardi eta zakartasun ori guzia, gorde bear dezute naitasunezko gauzakin dator-tzen zaldun oiei argiro esateko, Barzelonan bada, dijioaztela *Parke*'ra chimuakin jostatzerá, eta Madrillen bada, dijioaztela *Erretiro*'ra, eta an ere arkituko dituzte pisticho oiek.

Bestera, izan dakiozute begirune andia eta maitatu egiazko zaldunak (besteak eztira egiazkoak, ala jantzita ibilliarren), bada zuen guraso eta anaien tokian daude, eta ez bakarrik berak ongi begiratuko dizute, baizik ezduzte iñori ere gaitz egiten utziko.

Gañera morroirik badago echean, izan bear dezute kontu chit andia, geiegiko sarrera edo konpiantzarik ez ematen: eta oetakoren batek nai balizuteke egiazki ezkontzaz itzegin lenen esan bear diozute echekoandrari, eta gero ura edo zuek irten echetik, eta jarraitu, orrela banakatuta, ezkondu arteraño adiskidetasunari.

Mundu onetan ez bakarrik izan bear degu onak, baizik beartuak gaude onak bezela agertutzea gaizbiderik (1) ez emateko, bada chit da pekatu larria; argatik esaten dizutet ongi eta onradukiro egin nai badezute, ezdezutela egundaño ezkontzeko itza emana daukazuten gizonarekin eche batean bizi bear, esanaz askok bezela ematen duten zer esana agertzean: «nik ez diot Jainkoari beste-

(1) eskandalorik.

ri konturik eman bear:» egia da, baña Jainkoak nai du ikasbide ona ematea, eta charra ematen badegu kontua eskatuko digu, baña kontu chit estua, bada gaizbideko pekatua chit larria da.

Munduak ezdaki zer dan karidadea, eta nola baitan guzien izen ona jan nai lukean piñti gosetia, iges egin bear zaio beti eta ez nabarmendu beñere, ortzak ezarri ezditzan gure izen onean.

Ez eraman gañera broma eta itzaldi andiak saltzalle edo dendariak zuekin eramaten, asko ikusi oidiran bezela mirabeakin jostatzen, nagusien echean egon bearrean beren bearrak betetzen, choro batzuek dirala adierazotzen diez-tela ikusten dituzten guziaz.

Ez uste izan nik ezdetela ezagututzen gazteak bezela gustatzen zaitzutela pis-ka bat jostatzea, kutuna izatea eta ez-kondutzea, mojatako gogoa ezbadezute beintzat; au guzia chit berezkoa da, baña ipuiak dion bezela: «ezkontza eta il-jantzia zerutik jachitzen da;» beragatik zuek alegindu bear dezute chit onak izaten, ongi beteaz zuen bearrak eta eskatuz Jaunari sinismen, begirune eta uste osoarekin, oroitzen zeratela, errezatzen

dezutenean zeru ta lurraren Jabearekin itzegiten dezutela; au da zuei lagundu aldeakeana eta lagundu nai dizutena: eskatu dakiozute, ala egoki bazaitzute, eman dakizutela senar langille eta kristau on bat billatzeko laguntza; eta sinistu ezazute onak ezbazerate ezdezutela egundaño arkituko, ezkontzen bazerate, izango dalako geienaz burutatzez ezkonduko dan buru ariñen batekin, eta gero (ala bear bada) erdibituko zaituzte malkadaren batez: gizon onak, onraduak eta zintzoak chit ongi begiratzen dute norekin ezkondu.

Irakurritzen, eskribatutzen eta kontuak ateratzen zerbait ikastea beste oso on zaitzuten gauza bat da, gaur edo biar bizibide obeago bat arkitzeko. Asko dira diru piskacho bat dutenak eta dendacho bat jarri edo beste edozein artu-emanean sartu nai lutekenak; eta orretarako bear dute zerbait dakian emazte bat, bien artean lana eta echeko kontuak eramateko. Oso on zaitzute gañera planchatzen eta josten ikastea, senarrak alde batetik irabazten duan artean, zuek ere, echeari begiratuaz eta inora irten gabe, irabazi dezazuten bes-

te aldetikan zerbait. An eta emen ikusten diran denda oiek, eta beren jabeak chit aberatsak gaur dirala, beartsuak ziran ezkontzean, baña langilleak, eta lanaren bidez eta beti batera aleginduz urte batean eta bestean beren ondasunak egin dituzte: izan zituzten semeak, eta berak nola baizekiten zerbait, etzituzten utzi nai izandu beren semeak ere ezjakiñean; bialdu zituzten ikasoletara, geroago ikasi zuten zuzenbide (1) bat, eta guzien irabaziarekin orain dute bitzitza zintzo bat eta zorioneko zartzaroa.

Bestera gaizbidea eta lotsagabekeria besterik ikasten eztan dantzetara jauten baizik ezdakiten neskameak, bizirik pisticho batsuek bezela jaten eta edaten, edo eztira ezkonduzen, edo ezkontzen dira berak bezain buru arin batekin eta iltzen dira larri gogorrean: semerik badute, kalerik kale dabilzan gaizto batzuek dira, eta beren azkena gurasoen izen charra eta eriotza mingarria.

Chit egia da nik esaten dizutedan guzia, eta zuek ongi dakizute, bada zuen

(1) ofizios.

lagun askotan ikusten dezute. Konseju au bukatu baño lenago (eta esan det chit ardura andikoa dala) chit gogoz eskatuko dizutet ezditzatzutela luzaro eraman ezkontza aurreko adiskidetasunak, alde askoetatik gauza chit charra dalako. Badakizute konseju oek ekintzategi (1) edo lantegietan ari diran gazte guzientzat dirala, orrazkille eta jostunentzat, da esatea, neskameentzat eta oek bezela echetik kanpora ogia irabazi bear duten guzientzat.

Kontu asko, nere alabak, pabrika eta lantegietan joaten zeratenak; ez langilleai, ez agintariai utzi bear diozute danik libertade chikiena ez itzetan ez egin-tzetan; gizonakin izan bear dezute beti atsegiñak eta beti zerbait gogorrak; oek esaten duten edozein gauzarekin beti algaraz dauden neskachak, onak badira, ezdirudite ala, eta beren algarakin ezagututzen dituzte gazteakin benturatuko ezliraken jostaetarako oña ematen dute.

Echeren batean sartutzean oroitu bear zerate echekoandraentzat bakarrik zera-tela; bada zaldunak eta galaiak badi-

(1) fabrika.

tuzte beren jostunak eta orrazkilleak; argatik ezdezute, toki charrean ez gertzeko, bear dana beste egitekorik izan bear aiekin; da esatea, agur egin eta erantzun zerbait galdetutzean, baña itzaldia beñere luzatu gabe, bada ezdakar oekin itz asko egiteak batere onik, eta zuek zer ikusi guzia, esan dan bezela echekoandrarekin dezute.

Norbaitek ezkontzeko itza eskatutzean baiezkoa eman baño lenago, begira ongi erlijiorik ote duan gizon orrek, bada Jainkoarekin ezbadu begirune egiazkorik, guchiago izango du zuekin, eta gero begiratu sari jakiña daukan, langille on bat ote dan; ala balitz, esan dakiozute itzezin dezala zuen nagusiakin edo agintariakin, bada oek dira zuen gurasoen oñordekoak, eta ill guchi barru ezkondu ezin baditeke, alde batera utzi; echeko alabak nork begiratua badute eta gurasoen aurrean itzegiten dute beti senargaiarekin (1), baña zuek zeren buruari begiratu bear diozute, eta gaitzerako bidea kendutzen duanak, zoriya kendutzen du: gañera sarritan galdu oi dira senar-

(1) nobioarekin.

gaiagatik eche chit onak, bada astiya galdu eragiten dizute, askotan zuen obligazioai uts egin, eta echekoandra zuei begira egoteaz aspertzen dan egun bat etortzen da azkenik.

Ezkontz aurre laburrak eta onak; da esatea, ez Jainkoak ez munduak izan dezatela zuen naitasunagatik zer esanik; izan beti gogoan ezkongaitan chit onak diranak, ezkontuta dirala chit zorionekoak Jaunak eta Maria Amak beren naitasunak bedeinkatutzen dituztelako.

AMARGARREN BURUA.

Jainkoaren legeko lenengo agintzea da bera gauza guziak baño geyago maitatzea eta bigarrena berriz bakoitzak bere burua bezela urko laguna.

Bigarren agintze onek (urko laguna maitatzea bere burua bezela) esan nai du chit karidade andia izan bear degula bat-tak besteari; baña ez uste izan beartuari

diru piska bat ematean bakarrik dagoa-
la birtute au, ez inñolaz ere; karidadea da
Jainkoaren birtute mamia, berak geiena
saristatutzen duana, eta beartsuak edo
aberatsak, guziok egin dezakegu.

Jaunak berak dio, zer neurriarekin
besteak neurtu, neurri berberakin izango
gerala neurrituak.

Karidadea era askotara egin dateke,
eta nik, asko nai dizutedanezkero eta
zuen ona chit gogoan detalako, nai nu-
ke chit karidadetsuak izatea, eman daki-
zuten Jaunak gauza guzietan zorion an-
di bat; jakin bear dezute bada, nere ala-
bak, eztagoala ezer ainbeste zorion ekar-
tzen digunik besteakin karidadetsuak iza-
teak ainbat.

Gauza karidadetsua egitea da, zenbate
edo numero guzietan zerbait erortzen
dan joku oietan chartel bat artutzea be-
zela: egin zazute gauza on bat, eta zau-
dete seguru goiz edo berandu izango de-
zutela saria; kontrara chit seguru egon
bear zerate gauza charren bat egiten ba-
dezute, eztala kastigua etortzen asko lu-
zatuko.

Esatera noa zuen eskuan dauden kari-
dadezko egintz asko, eta bera egiteaga-

tik sari andia emango dizutela Jaunak. Ongi dakizute goseteari jaten ematea dala karidadezko egintz chit andia; ez bada utzi illean limosnacho bat (naiz izan chikia) egin gabe zuen irabazitik: zuek beartsuak zerate, baña Jaunari eskerrak ez dezute ezer bear, eta ongi eman zekiotzute beartsu bati ogi puska bat illekoa artutzen dezuten egunean; eta zuen izerdiarekin irabazitako limosua onek, aberatsen duro pillak baña geiago balio-ko du Jaunaren begietan.

Limosna au dirutan da, baña badira osartearekin (1), umiltasunarekin eta beste birtuteekin egiten diran limosnak. Izan bear dezute karidadea beste mirabeakin izanaz askarri (2) onekoak, beren utsegiteak esan gabe, su geiago emateko, nagusiak aserre daudenean, bada au litzake karidadearen kontrako chit utsegite andia. Izan bear dezute pakea guziakin, bada Jaunaren doaia da pakea, eta deabruarena bekaitza (3), eta au da karidadearen illatia: izan zazute karidadea eramanez piska bat zuen lagunen etor-

(1) pazienziarekin.

(2) jenio.

(3) enbidia.

kia (1), eman ezdezazuten pakea sastutzeko oña.

Ezer ezdakiten, ikasteko ere gogorik ezduten, len esan diran mirabe oiek, gauza jakiña da iñori ere ajolarik ez izatea, bada ez dute aziera (2) onik, eta besteak begirunetutzen (3) ezdakiten ezker ezdituzte berak ere kontuan artutzen, eta orrela garai guzietan dituzte beren lagunakin auziak; eta gero autsi nola nai ezбайдuten burua irakasdea (4) ikasten, aztutzen zaite egunoro esaten diogula Jaunari, Aita Gureko otoitzan: «barkatu gure zorrak, guk gure zordunai barkatzen diegun bezela;» eta ez dute barkatu nai zerbaitan utsegiten bazaite, baizik beti daude mendeka (5) nondik artu eta nondik minberatu beren lagunak.—Ez izan orrela, nere alabak, begiratu beste mirabeai anaiak balira bezela; bakoitzak bere azgarria (6) du, eta eztira orregatik bakatutzen familiak: esango dezute dala, anaien artean izan oidalako zuen artean ezin dateken kariñoa; egia da, baña pen-

-
- (1) jenioa.
 (2) edukazioa.
 (3) errespetatutzen.
 (4) kartilla.
 (5) benganza.
 (6) jenioa.

satu bear dezute, Jainkoak eche batean jarri bazaituzte, dala batak besteakin osartea izatea nai dualako, eta karidadezko egintz chit andia da zuen etorkia (1) menderatutzea, guziak pakean bizi ditzen.

Bear eztan gauzetan ikasbide (2) charrak ematen dituan lagunen bat badezute, nagusiai bereala esan bear diozute, eta oek sendakaia (3) jartzen ezbadute, esan dakiozute, edozein dala, berak echean nai badu, zuek kanpora joango zeratela; baña lenago alegindu bear dezute izan dedin bear bezelakoa, ematen diozutela zuen aldetik ikasbide onak.— Ezta aski persona onak berak onak izatea, baizik Jaunak nai du besteak ere onak egiten alegintzea.

Karidadea egitea guztatzen bazaitzute, ez izan bekaitzarik (4) asko ematen duten aberatsai; beartsuak izanik, egin dezakezute aiek ainbat karidade edo geiago, bada on asko, chit andia, egin ditzaiezkezute beste neskachai zuen ikasbide eta zuen itzaldi onaz. Diruarekin

-
- (1) jenioa.
(2) ejenploa.
(3) erremedioa.
(4) enbidiarik.

ematen da limosna jateko eta jazteko, da esatea, gorputzeko bearretako; baña ikasbide zuzenakin eta itz onakin egiten zaie animai, eta animak askoz ere geiago balio dute, bada iltzen geranean, larrak jaten ditū gorputzak, baña anima edo zerura joaten da beti betiko Jainkoarekin izateko, edo amildutzen da betiko inpernuan.—Gorputza salbatzeko egiten diranak baña ederragoak, eta Jaunaren begietan chit atsegiñagoak, dira anima salbatzeko egiten diran gauzak; eta gure anaien naigabeakin kupidatutzea chit gogoan badu, lenago da beti anima.—Eztakizute zuek, nere alabak, zer gauz ederra egiten dezuten eta zein sari andia Jaunak emango dizuten, baldin neskach berri bat ezagututzean, bera ere ona izan dedin zaiatzen bazerate.—Ikustean neskach gaišo bat bere erritik etorri eta iñor ezagututzen eztualala, esan dakiozute Jaunaren izenean, bere lagunak izan nai dezutela, eta deabruak arrapatu baño lenago galdutzeko, eramana mirabe choro eta nabarmenak joan oidiran dantza gaiztoetara, eramana zazute zuek karidadez besoak zabalduta dauden Monja santu

eta, beren adiskide eta echeetako egoki goñoak utzita, jaiegunak gazteai erakutsitzen igarotzen dituzten emakume on aietara, ikasi dezan zer zor dion Jainkoari eta zer beren nagusiai: ikasola oek esan oidira «Igandetako eskolak.»

Neskach gaiño oiek, nola ezбайдuten ezer ezagututzen, joaten dira eramaten dituzten tokietara, eta gaizki asitzen bada, gaizki bukatzen dute geienean, bada ez dakar beñere atzen onik, bide charretik ibiltzeak mundu onetan.—Alegindu bear zerate gañera jausteko zorian dauden neskach gaiñoak bide okerretik alderaerazten, bada asko oidira gaiztoak eztiranak gaur, baña izango diranak biar, uzten ezbadituzte zenbait lagunkida eta jarraitu nai badute zenbait ibilleretan: lan geiago izango dezute oek bide zuzenera ekartzen, baña andiagoa ere izango da zuen karidadea, eta Jaunak eskeñi badu bere izenean ematen dan ur tantocho bat sari bage ez uztea, pensatu dezazute zer emango dizuten zuei. Zerua emango dizute, gauza jakiña dalako, animak irabazten alegintzen danak, irabazia daukala berea, aurreraz egiten badu besteai erakutsi-

tzen diena.—Ikusten badezute asko kostatzen zaiola neskach bati ainbat ardura dioten gauzak ikasteko, jaiegunetako jostaerak uztea, esan dakiokute, zerbait sendotutzeko, ez dedilla ikaratu, eztuala juan bear bizitza guzian, baña alegindu dedilla beintzat zerbait ikasten illabete batzuetan: guzia da zuek bidean jarritzea, bada Jaunak egingo du gañeztikakoa.

Ikustean Ama Mariari eta Jesusen Biotz chit Maiteari donezbedetuak (1) dauden illetan, oek dira Maiatza eta Garagarilla, echekoandrak eleizkizun (2) ain ederretara dijoaztela, pensatu ezazute aiek ainbat edo geiago irabazi dezakezutela zuek ere Jaunaren begietan. Ama Mariaren illean esan itzatzute belaukatuta egunean iru «Salbe,» bakoitzaren ondorean esanaz: «¡O Maria! zure eskuetan jarritzen det nere izatea;» eta egunoroko zuen eskiña (3) izan dedilla, zuen ezagun guziak toki onetara eramaten chit gogoz saiatzea, ikasi dezaten kristau zuzenak eta mirabe leialak izan.

-
- (1) konsagratuak.
(2) Eleizfunzioa.
(3) ofrenda.

ten; eta sinistu ezazute auñen dala eskeñi zetzakiozuten lorarik ederrena.

Garagarrillean nai badezute Jesusen Biotza onratu, esan aldezutenean iru bider *Kredoa*, eta eskeñi chit umiltsuak izango zeratela zuen agintarien aginduetara bada birtute au da Biotz Don-tsu oni atsegin ederrena ematen diona, esanaz atzenean iru aldiz: «Nere Jesus, eman zadazu zure Biotza, eta artu nerea, eta egin zurean antzekoa, zintzo ta iñilla.»

Ikusten dezute, nere gazteak, chit onak eta zuzenak izan ziñeskizutela, eta bete chit neke guchirekin Jaungoikoaren eta lagun urkoarenganako karidadearen agintze ederra.—Guzientzat dago Zeruko bidea idikia, eta era guzieta-ko gizonak eta emakumeak eldu dira aruntz, erregerik andienak eta gizon beartsuenak: munduan obekiena betetzen duanak Jaunaren legea, arehek izango du Zeruan tokirik onena, eta barrura sartutzeko eztio galdetuko San Pedrok nor dan, baisik zer egin duan.

AMAIKAGARREN BURUA.

Nai nuke konseju oek zuentzat eskribatutzen igaro ditudan une edo momentoak Jaungoikoaren gloriarako eta zuen animen onerako izatea; eta batetzat baik serbituko ezbaluteke ere, pozkida andia litzake nere biotzarentzat!—Esan dan guzia da chit erraza, ala bait ere, egiten badezute, ondasun andiak ekarriko dizkitzute; eta liburuchu au irakurritta gero egin nai ez badezute esan dana, ohea litzake ez irakurritzea, zer egin jakin eta egiten eztuan gaztea, eztakiana baña errutiagoa (1) da azkoz ereta. Jaungoikoak nai badu mirabe izatea, zaudete zuen suertearekin pozkidaz, bada sinistu dezakezute zuek nai badezute, eztala ain charra: kristau ona, zerbait dakiena eta beragatik guziakin ongi azia eta atsegiña dan mirabea, alegintzen dala bere eginkizunak ongi betetzen eta


(1) kulparragoa.

egunetik egunera gauzak egokiago egiten, gazte au da zorionekoa noski; onelako mirabeai nai dio Jaungoikoak eta nai diote nagusiak, eta beti ditu echeak, eche chit onak.—Onelako mirabeak, ongi dakizte beren eginkizunak eta oso gogoan dauzkate nagusiak, urte asko egiten dituzte echean, eta ez pensatu ilko dirala eritegian (1), oek iltzen dira edo nagusiak begiratzen dieztela edo beren echechoan, bada ainbeste urteen buruan irabazi dute dudarik gabe zerbait eta jarri zartzaro on bat izateko oñean.

Echean urte asko daramazkien mirabe on bati etzaio begiratzen serbitzallari bezela, baizik familiako bati bezela, eta ez berak utzi nai du echea ez nagusiak irtetzea. Zartutzean, alduana egiten du eta ez geiago, eta nagusiak gogoz barkatzen dizkiote bere lelakeriak, oroituaz ogei edo ogeita amar urte aurretik berak igaro zituala beren semeenak; oek berriz chit maite dute eta ama bati bezelako konfiantzarekin beti begiratzen diote.

Ezkontzen bada onelako mirabe bat,

(1) ospitalean.



ezta ezkontzen edozeñekin, bada nagusien baimenarekin egiten du guzia; eztiote oek bere ondamena billatzen ezten eta eskua ematen diote lana billatuaz senarrarentzat: da esatea, ezkontuta edo ezkongai, beti da emakuma zorionekoa, ongi ikusia Jaungoikoaren eta munduaren begietan. Eta nori zor dio bere zoriona? Alegindua izan da, ikasi ditu gogoz Jaunarekin eta lagun urkoarekin dituan bearrak; eta emen dago guzia.—Naikoa esan degu onak eztiran mirabeen etorkizunaz: eztago beste alderdirik ez bada erregutu Jaunari eta alegindu tide zuzenera ekartzen.

Ez dizutet agertu gauza bat, eta beraren berri itz bi esan nai ditut.

Da mirabeen jazkeraz: ¿badakizute zertan izan bear duan zuen lujoa? Beti chit garbiak ibiltzen, bai zuen persontan ta bai zuen jantzian, ehebarruan bezela kanpora irtetzean.—Ez dezazute egundaño zuen oñetik irten eta echekoandrak bezela jantzi nai izan: au ain parragarria litzake zuen echekoandrak, noizean bein Erregiñak dirala eta ala balira bezela pensatzea, guzia egun batean gästaturik, ardit bat gabe

bizitza guzirako geratzea.—Bakoitzak bizi eta jantzi bear du Jaunak munduan eman dion oñari dagokion eran; mirabeak, mirabea bezela, eta echekoandrak, echekoandra bezela, ez gai edo oialetan bakarrik, baita ere ichuran.—Ezdagokion bezela jazten dan mirabea, chit arro dabil mundu guziaren begiak beregan dituala, eta pensatu gabe guziak par egiten diotela. Eta badakizute zertara jartzen dan? Bada jartzen da guziak bere izen ona dudan izateko zorian: batzuek esango diote sisatzen duanarekin dabillela ain apain, besteak berriz kutunak (1) erosten diola, bere irabaziak ainbesterako ematen ez tulako: ; Zer lotsa!

Zoazte beti chit garbiak; ongi orraztuak, ongi jarriak; baña izan dedilla guzia zuen oñari dagokion neurrian, bada onek ere mesede andia egiten dizute eta eztu iñork zuengatik esango, eztirana irudi nai duten mirabe aiegatik esan oi dana: «Sedaz jantziagatik chimua, beti chimu.»

Badakizute, nere gazteak, zer nai nu-

(1) *uhioak.*

kean zuengandik zuen onerako: kristau chit onak izan zaitezte, bada onela lagunduko dizute Jaunak, eta Santa Teresak dion bezela, «Jaungoikoa daukanak, eztu ezer bear.»

Izan zaitezte zuen nagusientzat, ez mirabeak, baizik naitasunez eta begirunez betetako alaba batzuek bezela, atsegiñ guzian ematen alegintzen zeratela, eta ez zenbait mirabeen antzera, ikusiatik bearrean dagoala echekoandra, berai dagokien lana ez bada, edo ezer egiten ezdutelako edo gogo charretik egiten dutela. — Beste batzuek ikusten badute ere irtetzea tokatzen zaiten egunean eztagoala ain ongi echekoandra, ezdute batere ajolarik, eta beste guziak baño lenago da berak kanpora juatea. — Eztakite mirabeak oekin eta onelako beste zatarkeriakin galdutzen dutela naitasun eta ondasuna; bade mirabe leial eta zintzo bat gauza bearra bezela egiten zaio bere echekoandrari eta ateratzen du, esan oidan bezela, izen ona eta prochua. — Izan zaitezte gañera onak zuekin, galdu gabe egundaño emakuma onraduaren goiende (1) ura, emakume

(1) dignida e

kristauarekin ain ongi esaten duana eta bere lorarik ederrena, Erregiña dala edo mirabeak izan.

Izan dakiozute garbitasun eta aingerutasuneko birtuteari naitasun chit andia: eta gorde dezazuten, bukatzen det asi bezela, konsejatuaz izan dakiozutela garbitasunaren Amari, Lagunzgabekoen Birjiña chit Santuari, naitasun bizibizia, eta ezdezazutela utzi egun batean ere esan gabe Zeruko Erregiñ oni: «O Maria! zure eskuetan uzten det nere izate guzia.»

Egin zazute onela, nere alabak, eta Jaungoikoak nai dezala zuek, esan oek jarraitzen dituzutenak, eta ni, ematen dizkizutedana, egunen batean Zeruan arkitzea.

¡Jaungoikoaren gloriarik andienarako!

ARKIBIDEA.

	<u>Paga.</u>
Itz bi	3
Nere irakurleai.	5
Lenengo burua.	9
Bigarren burua	14
Irugarren burua	22
Laugarren burua	29
Bosgarren burua	40
Seigarren burua.	47
Zazpigarren burua	54
Zortzigarren burua	63
Bederatzigarren burua	70
Amargarren burua.	80
Amaikagarren burua	89

